

ASTELEHENEKO Goienkaria

2007ko ekainaren 18a > Astelehena > III. urtea > 150. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Kapitalista dirudi, baina edozer eta edozein izan daiteke marka"

Asier Albistur
Marketin plangintza > 06



G2a

'Dido eta Aeneas' operaren kontzertua > 23

PILOTA
Arrasate, Herri Arteko Pilota Txapelketako finalean > 15

FUTBOLA KILOMETROEN ALDE
Bergarak eta Realak Kilometroen aldeko partidua jokatuko dute > 17

KONTZERTUAK
Arrasateko eta Bergarako musika eskolen ikasturte amaiera > 24

TURISMOA > ARRIKRUTZ

Arrikruzten omenezko bonboia

Arrikruzteko Harribitxia delako bonboia aurkeztu berri dute > 05

ARRASATE > JAIK

Ia 400 ume irten dira danbor-jole

Iaz baino hiru aldiz ume gehiago, 380, irten dira aurtengo danborradan > 27

GIZARTEA > BERDINTASUNA

Tratu egokien kamiseta

Arrasateko Emakumeen Kontrako Biolentziaren Aurkako Plataformak gaur, astelehena, aurkeztuko du tratu egokien kanpainako kamiseta. Lehiaketa deitu zuen berau aukeratzeko, eta lan irabazlea aurkeztuko dute. Jaietara begira salduko dute udal bulego eta tabernatan. > 05

POLITIKA > UDALBATZA ERAKETA

Ezusterik gabe eta aurreikusirik bezala eratu ziren udalak

ALDAKETA Debagoieneko udal mapa asko aldatu da: EAEk bost alkate ditu; Aralarrek, bi; eta EAJk bakarrari eusten dio

EAE Protesta ekitaldiak egin zituzten EAEkoek, udaletxeetan zein kalean, eta EAEko alkateek aipatu egin zuten egoera

KEINUAK Aretxabaletan eta Oñatin, alkateek keinuak izan zituzten EAerekiko; eta kargu batzuk ez ziren hartu > 09



IKUSGARRIA Jauzi ikusgarriak egin zituzten motor gidariek Bergarako zirkuituan, Candy lantegiaren inguruan.

JOSETXO ARANTZABAL

Euskadiko Motokros Oponerako puntuagarria izan da Bergarako lehia

Pazkoetan, eguraldi txarragatik bertan behera geratu zen motokros txapelketa jokatu zuten zapatuan Bergaran, Candy ondoko zelaietan. Motorzaleek Euskadiko Motokros Txapelketarako puntuagarria izango den lasterketa ikusteko aukera izan

zuten. Parte-hartzaileak 1,3 kilometrotako zirkuituan ibili ziren, nor baino nor gehiago. Guztira, 80 parte-hartzaile inguru batu ziren Candy, bost taldetan banatuta. Helduen mailan, MX1 kategorian, Heber Garmendiak irabazi zuen. > 19

HEZKUNTZA > UNED

Enpresa-Zientzien diploma lortu ahal izango da UNEDen

Enpresa-Zientzien Diplomatura ikasketak osoak emango ditu Bergarako UNED ikastetxeak 2007/2008 ikasturtean. Hori da datorren ikasturterako UNEDeko arduradunek jakinarazi duten berrietasun nagusia.

UNEDen unibertsitate ikasketak eskaintza osoa gaur, astelehena, dira aurkeztekoak

Donostian, Koldo Mitxelenan, Bergarako ikastetxeke Juanjo Alvarez eta Vicente Huitzi arduradunak. Gurean, Bergarako plazan duten egoitzan lor daiteke informazio hori; bestela, 943 76 90 33 telefonora deituta.

Horrez gain, goi mailako 30 ikasketatik gora egin ahal izango dira UNEDen. > 04

AURKIBIDEA

- Debagoiena > 04-05
- Elkarrizketa > 06
- Iritzia > 07-08
- Herriak > 09-14
- Kirola > 15-22
- Kultura > 23-27
- Sailkatuak > 28
- Irrati-Telebista eta Hitzordua > 29
- Berri-zakua > 30-31
- Azkena > 32

SUPER AMARA

DENAK GUTXIAGO BALIO DU

BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea, 18 Bezeroentzako Aparkalekua

OSASUNA > OSTEOPOROSIA

Hezurrak apurtu arte, isilean egoten den gaitza

HEZURRAK, AHUL Osteoporosia duen gaixo baten hezurrak begiratuko bagenitu, zuloz beteta baleude bezala irudikatu beharko genituzke

MINA Hezur hausturaren bat agertzen denean salbu, ez dago inolako sintomarik, gaixoez ez baitute min astunik sumatzen

TRATAMENDUA Komeni da, eguneroko bizimoduan, neurriak hartzea gaitza saihesteko; gaixotasuna diagnostikatuta, botikak eta kirurgia dira irtenbideak

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARETXABALETA
Isileko izurritea modura bataiatu izan den gaitza, hezurretako ezkutuko arazo latza, da osteoporosia. Gaixotasun honek jotakoen kopurua goruntz doa, gainera, eta osasun alorrean dihardutenengan ez ezik, gizartean ere kezka sortu du.

Gaitz honen larritasunari erreparatuta, egubakoitzean osteoporosiaren gaineko jardunaldiak egin zituzten, bigarren urtez, Aretxabaleako Otolara jauregian. Debagoieneko Ospitaleko Kirurgia Ortopediko eta Traumatologia sailak antolatu zuen hitzaldi sorta eta, besteak beste, hitz egin zuten osteoporosiaren egungo egoeraz, tratamenduez, arrisku faktoreez, gizonezkoengan duen eraginaz...

HEZUR HAUSKORRAK

Hezurra hauskorrago egiten duen gaixotasuna da osteoporosia. Hezur-masa gutxira egiten da, baita hezuraren erresistentzia ere. Izan ere, osteoporosia duen gaixo baten hezurrak begiratu bagenitu, zuloz beteta baleude bezala irudikatu beharko genituzke. "Horrek hezurra ahultzea dakar, hauskortasuna. Hortaz, errazagoa da hezur hori edozein unetan apurtzea", esan digu Debagoieneko Ospitaleko traumatologo Iñigo Etxebarria.

Osteoporosia agertzearen arrazoiak zein izan daitezkeen galdetu diogu Iñigo Etxebarria doktoreari. "Emakumeetan, menopausia izan ohi da arrazoi-tako bat. Izan ere, estrogenoek hezuraren duten eragina gutxitu egiten da. Ondorioz, hezurra bera ere gutxira doa, oso azkar gainera. Beste kausa zehatzago batzuk ere badaude, botika batzuk denbora luzez hartzea, adibidez. Gizonezkoen kasuan, osteoporosia oso ezberdina da. Alkoholismoarekin, kortikoideak hartzearekin eta testosteronaren sekreziorik ezarekin lotua dago, batez ere", azaldu digu.

Arraza zuria, elikaduraren inguruko arazoiak, hormona alterazioak, eguzkitan gutxi egotea, ariketa fisikorik eza, emakumeek ez erditzea, familian osteoporosi aurrekinak egotea, gorputzeko pisu eskasa eta tabakismoa ere osteoporosia eragiteko arazoi moduan hartzen dituzte adituek.



TRAUMATOLOGOIA Osteoporosia duten gaixok traumatologoak tratatzen ditu; Iñigo Etxebarria Debagoieneko Ospitaleko traumatologoa da.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Gaitzari buruz ezer gutxi dakigun arren, jende askori eragiten dio. Espainian, bi milioi eta erdi emakumek eta 500.000 gizonezko du osteoporosia. Iñigo Etxebarria medikuaren arabera, "batez ere, adin batetik aurrerako emakumei eragiten die; bestalde, badira adinez hain nagusiak ez izan arren, bestelako arazoi batzuegatik, osteoporosia izan dezaketenak. Esaterako, sendagai zehatzak hartzen dituztenak, kortikoideak, kasurako; gizonezkoen kasuan, alkoholarekin arazoak dituztenak; eta kaltzio gutxi hartzearen ondorioz arazoak dituztenak izan ohi dira kaltetuak".

Osakidetzako familia medikuek, 2005ean, ia 7.400 osteoporosi kasu berri antzeman zituzten; aztertutako ia 12.850 gaixoez %28ri, hain zuzen ere. Etxebarriaren esanetan, "gure ibarrean ez dago ezberdintasun nabarmenik

Adin batetik aurrerako emakumei eragiten die gaitzak batez ere, menopausia dela-eta

Haustura ohikoenak bizkarrezurrekoak, mokorrekoak eta eskuturrekoak dira

haustura kopuru eta motei dagokienez. Hala balitz, eta datu harrigarri bategi, aztertu egin beharko litzateke arazoaren muna zein litzatekeen. Osteoporosiarekin lotutako hausturarik ohikoena bizkarrezurrekoak, mokorrekoak eta eskuturrekoak izan ohi dira, baina baliteke beste batzuk ere egotea".

EZ DA ZERTAN ZAHARTZAROKOA

Hezurretako gaitz gehienak bezala, osteoporosia ere zahartzaroarekin lotu ohi du askok: "Baiez tapen hori ez da guztiz zehatza. Zahartzaroan, zimurrak agertzen dira azalean, aurpegian, baina, osasunari dagokionez, ez du eragin nabarmenik. Zimur horiek hezurretan agertzen direnean, ordea, hezurra hausteko arriskua dago, zaharrak izan ala ez izan. Hortaz, gaitz honek adinaren duen lotura ez da askok uste bezain estua edo zehatza.

Egia da, adinean aurrera joan ahala, hezurdurak gutxira egiten duela, baina hori saihesteko har daitezke neurriak aurrez", esan digu Iñigo Etxebarria Debagoieneko Ospitaleko traumatologoak.

SINTOMA GARBIRIK EZ

Artrosiak edo artritisak ez bezala, osteoporosiak ez duela minik ematen esaten dute adituek. "Ez dago inolako sintomarik, hausturaren bat agertzen denean salbu; eta haustura hori gaitzaren ondorioa litzateke, gainera. Horregatik deitzen dio askok *izurrite isila*, eta isiltasun hori aurre eginez, sendagileok saihestu nahi duguna hezurra apurtzea da", dio Etxebarria.

Horregatik, hain zuzen ere, menopausia aroan sartutako emakumei dentsiometria izeneko proba egitea gomendatzen diete sendagileek, hezuraren egoera ikusteko.

"Osteoporosiak, berez, minik ematen ez duenez, zailagoa da detektatzea, hezurrik ez bada apurtu. Bilatu ezea, oso zaila da aurkitzen. Baina, apurketaren bat gertatu aurretik, historia klinikoaren bitartez, gaixoaren adina jakinda, gaixoa hartzen ari den medikamenduari erreparatuta... susma daiteke hezurretako gaitza izan dezakeela. Gero, proba zehatzak eginez baieztatu behar litzateke", Iñigo Etxebarriaren arabera.

GAITZA SAIHESTEKO NEURRIAK

Badira hainbat neurri simple eta erraz hezuraren osasun ona mantentzen eta osteoporosia saihesten laguntzeko. Komenigarria da, gainera, neurri horiek umetatik hartzea, eragina bizitza osoan izango dutelako, baldin eta jarraituz gero: "Bizimodu sedentarioa albo batera utzi eta ariketa apur bat egitea, dieta orekatua egitea, erortzea saihestea eta esnekiak neurrian hartzea", dira, esaterako, neurri horietariko batzuk, Iñigo Etxebarriaren esanetan.

BOTIKAK ETA KIRURGIA

Hezurren kaltzio gutxitzeari aurre egiteko, botikek eta kirurgia teknika berritzaileek konponbide ona ematen diote osteoporosiari. Kronikoa izan arren, gaixotasuna moteldu egin liteke, medikazio eta tratamendu ego-

"Historia klinikoaren bidez, susma daiteke osteoporosia izan dezakeela norbaitek"

"Gaitza diagnostikatu eta gero,, pilula edo injekzio bidezko tratamenduak daude, epe luzerako"

kiekin. Hezurren kalitatea hobetzeaz gain, beroiek apurtzeko izateko arriskua txikitzen da. "Behin gaitza diagnostikatu gero, pilula edo injekzio bidezko sendagaiak daude, eta epe luzerako izaten dira. Gaixoek ondo toleratzen duten tratamenduak dira, gainera", diosku Etxebarriak.

Osteoporosia diagnostikatzen den unetik bertatik egin daitezke tratamenduak. Botiken artean, hainbat aurki daitezke aukeran. Batetik, hezur-masaren galera murriztu eta bizkarrezurrean eta mokorrean hezuraren dentsitatea gehitzen dutenak, hausturen arriskua %50 gutxituz. Talde honetan daude bifosfonatoak. Estrogenoaren hartzailearen molekula selektiboak ere badira. Gorputz osoko hezurren dentsitate minerala gehitzen dute. Raloxifenoa da ezagunena. Tratamendu hau espezialista batek gidatzea komeni da. Azkenik, kaltzitonina hormona dago, eta hezuraren suntsitze-prozesua gutxitu eta moteltzen du. Spray bidez ematen da, sudurretik edo azalpetik. Bestalde, berrikuntzetako bat da hilabetean behin hartzeko atera duten pilula, menopausia osteko garaian dauden emakumeendako aproposa.

Osteoporosiaren eraginez orno bat hautsiz gero, ohikoena da kortse bat jartzea zati haustiak soldatzeko. Baina mina jasangaitza denerako, bada kirurgiko teknikarik ere. Teknikarik berritzaileak erabiliz, mina berehala arindu eta ornoaren eta bizkarrezurrearen okerdura saihesten dira.

"Osteoporosiaren eraginez gertatutako hausturetz arduratzen den mediku espezialista traumatologoa da. Baina horrelako hausturaren bat izanez gero, gomendagarriena da larrialdi zerbitzura joatea, modu egokian aztertzeko. Izan ere, haustura batzuen kasuan, beharrezkoa izan daiteke kirurgia. Horretarako, traumatologoak balorazioa egin eta erabakiko du operatu ala ez", azaldu digu Etxebarriak.

Gaitz honen harira, etorkizunera begira ere jarri dira adituak. Euren helburua da gaixotasun honen berri hedatzea. Izan ere, jendeak apenas egiten dio kasurik. Hortaz, tratamendu berrien gaineko ikerketak egiten ari dira, besteak beste.

Bien bitartean, gehien errepikatzen duten gomendioa gaitzari aurrea hartzea da, berandu izan baino lehen.

Pilar Velez > Osteoporosia duen gaixoa

"Osasun mentala oso garrantzitsua da gaitzari aurre egiteko orduan"

I.A. > ARRASATE

Debagoieneko Ospitaleko ebakuntza-gelan erizain laguntzaile lanetan jardundako emakume honek osteoporosia du orain, eta gaitzari buruz zerbait gehiago jakiteko hartu du parte jardunaldiotan.

Nola jakin zenuen osteoporosia zeneukala?

Jausi egin nintzen eta ornoen zapaltzea izan nuen, eta orduan, esan zidaten osteoporosiaren eraginez izan zitekeela; gainera, hezur-masa asko galdu dut, eta ornoen arteko atximurak ere hasi dira agertzen.

Zerk eragin dizu osteoporosia?

Lupus gaitza dut eta, hainbeste kortikoide hartzen ditudanez, horrek osteoporosi larria eragin dit. Gaur egun, Etxebarria doktoreak tratatzen nau Eskualde Ospitalean.

Zein sendagai hartzen duzu?

Lau hilabete dira fosteo izeneko botika hartzen dudala eta, oraingoz, ondo doakit. Azkenaldian, ez dut bizkarrezurreko krisi gogorrik izan, lehen bezala. Ornoen zapaltzea ere badaukat, eta fosteoa hartzen dudanez, krisialdiak ez dira hainbestekoak. Luma

moduko xiringa bat da, merkatura atera den azkenetarikoa. Eguneroko injekzioa hartu behar izaten dut. Horretaz gain, lupusarendako kortikoide bidezko tratamendua egiten dut.

Bestelako neurririk hartzen duzu gaitzari aurre egiteko?

Ez, aparteko ezer ez dut hartzen. Gorputza arin igartzen dut, eta paseatu egiten dut. Osasun mentala beharrezkoa da, ahalik eta gutxien larritu eta kezkatzea.

Hala ere, gaitzak berak ez ei du minik ematen.

Hala diote, bai, baina nik izan dut mina, batez ere, krisiak izan ditudanean. Orduan, arnastean, eztula egitean sentitzen nuen mina.

Zertara etorri zara jardunaldietara?

Gure ospitaleak antolatzen duela etorri naiz; bestetik, gaixoa naizen aldetik, osteoporosiaren tratamenduak kezkatzen nau. Bestelako gaiak ere landu dira, eta gaitzaren gainean ikasteko aukera izan dut. Hortaz, besteei laguntzeko gai izan naitekeela uste dut. Osteoporosia pil-pilean dagoen gaia izanda, asko dago hobetzeko, eta ahal dudana egingo dut horretarako.

OSTEOPOROSIAREN GAINEKO HAINBAT DATU

GAIXOAK

150-200 milioi pertsonak dute osteoporosia mundu osoan.

50 URTETIK BEHERAKOAK

Espainiako gaixoen %30 (3 milioi) 50 urtetik beherakoak dira.

DIAGNOSIA

> Sintomak eta zantzuak dituzten lagunen %12 kasutan ez dute gaitza diagnostikatu.
> Diagnostikatu arren, tratamendurik jasotzen ez dutenak %5 dira.
> Diagnostika egin eta tratamendua jasotzen duten gaixoen kopurua %5ekoa da.
> %78an, sekula ez da gaitza diagnostikatu, ezta tratamendurik egiten ere.

HAUSTURAK

> Emakumeen %50ek eta gizonezkoen %30ek jasango du hausturaren bat osteoporosiaren eraginez bere bizitzan barrena.

> 30 segundoan behin, osteoporosiak eragindako hausturaren bat izaten da.

> Hausturarik ohikoenak hauek dira: bizkarrezurreko ornoena, mokorrena, erradio diskalarena, besahezurrarena eta izterrezurrarena.

> Haustura kopurua:

- AEB: 1.500.000 (1995)
- Erresuma Batua: 300.000 (2002)
- Frantzia: 190.000 (1990)
- Espainia: 350.000 (2003)



Pilar Velez arrasatearrak osteoporosia du, eta jardunaldietan izan da.

I.A.

Ekainak 18a:
134. zozketa

ASTELEHENEN GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, ekainak 18, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak! Asteleheneko Goiencaria-ko harpidedun bazara, adi:

Zeuz izan zaitzake hurrengo zozketako irabazleetako bat!

Saridunak

Markak Gernika 1937 Bernardo Atxagaren azken liburuaren bost ale.
Aitziber Urkia Galarza (Aretxabaleta)
David Martinez Puente (Bergara)
Jesus Jose Azkoaga Gordo (Arrasate)
Karmele Mendibe Latorre (Oñati)
Iñigo Almorza Aranguren (Bergara)

135. zozketako saria

EUTSI!
filmeko hiru kameseta



Harpidedun ez bazara...

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51
09:00etatik 18:00etara.

Harpidetza kuota:

35 euro
2007 bukaera arte.

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

HEZKUNTZA > UNED-EN IKASTURTE ESKAINTZA

Enpresa-Zientzien Diplomatura osorik emango du UNEDek

Datorren ikasturteko eskaintza gertu dauka Bergarako UNED ek; Enpresa-Zientzien Diplomatura osorik ematea berritasuna da

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA
Enpresa-Zientzien Diplomatura ikasketak osoak emango ditu Bergarako UNED ikastetxeak 2007/2008 ikasturtean. Hori da datorren ikasturterako UNEDeko arduradunek jakinarazi duten berritasun nagusia.

UNEDen unibertsitate ikasketak eskaintza osoa gaur, astelehena, dira aurkeztekoak Donostian, Koldo Mitxelena, Bergarako ikastetxeko Juanjo Alvarez eta Vicente Huitzi arduradunak. Gurean, Bergarako plazan duten egoitzan lor daiteke informazio hori; bestela, 943 76 90 33 telefonoan edo www.uned.es/ca-bergara webgunean.

HOGEITA HAMAR IKASKETA

Iaz eskaini zituen Bergarako UNEDek Enpresa-Zientzien Diplomatura ikasketak lehenengo aldiz, baina datorren

ikasturtean izango da ikasketak horiek osorik egiteko aukera. Horrez gain, 30 unibertsitate ikasketatik gora eskainiko ditu.

UNEDen gainerako eskaintza honakoek osatuko dute datorren ikasturtean: Doktoretza ikastaroak, 25 urtetik gorakoendako Unibertsitatera sartzeko ikasketak, Udako ikastaroak, Hizkuntzen Urrutiko Unibertsitate Zentroa -euskara, ingelesa, alemana eta frantsesa ikas daiteke-, masterrak, graduondoko ikastaroak, praktika juridiko ikastaroa, etxez etxeko laguntzailer diploma, liburutegi laguntzailer eskola, idazle eskola, nazioarteko merkatariza zuzenbideko egitarau modularra, psikomotritate eskola, hezkuntza ireki programako ehun ikastaro... eta, oro har, formakuntza iraunkorra eta norbera birtziklatzeko programa garrantzitsua.



TXOMIN MADINA

Hiri Teknologiko eta Unibertsitarioa

Oñatiko Hiri Teknologiko eta Unibertsitarioa inauguratu zuen Ulma taldeak joan den egunean; Juan Jose Ibarretxe lehendakaria, Juan Luis Madinagoitia Ulmako presidentea eta Lourdes Idoiaga Oñatiko alkatea, besteak beste, izan ziren ekitaldian. Ulmak egoitza nagusia, packaging saileko egoitza bat eta sustapen zentroa ditu han.



MONIKA BELASTEGI

Harrera beroa herri mugimenduen gaineko liburuari

Bergarako udaletxeko osoko bilkuren aretoa lepo bete zen joan den egunean, UNEDeko irakasle Manolo Cainzosen *Herri mugimendua, Bergara 1970-1980* liburua aurkezteko ekitaldian. Cainzosekin mahaian izan ziren, besteak beste, oraindik jarduneko alkate zen Victoriano Gallastegi, UNED-Bergarako zuzendari Juan Jose Alvarez eta Juan Mari Aranzabal Millaka argitaletxeko zuzendaria.

INGURUMENA ETA GARAPENA > 'URA ANTZUOLAN' LIBURUA ETA ERAKUSKETA

Antzuolak urarekin duen harremana, erakusketa baten

'Ura Antzuolan' delako liburua, urak herrian izan duen eragina azaltzeko, eta horretan oinarritutako erakusketa aurkeztu zituzten egubakoitzean

L.K. > ANTZUOLA

Zabalik dago, joan den egubakoitzean ezkerreko, *Ura Antzuolan* liburua oinarritutako erakusketa, Orlanen. Egubakoitzean aurkeztu zituzten biak egileek, Iñigo Ramirez de Okarizek eta Valen Moñuxek, eta Antzuolak urteotan urarekin, batez ere errekarrekin, izan duen harremana.

EKOSISTEMATIK UHOLDERA

Erakusketa didaktikoak bost gune dauzka. Hala, lehenengoan, uraren inguruko ekosistema bat simulatzen da; hurrengo guneetan, ekosistema hori gizakiak nola aldatu duen azaltzen da, dena Antzuolaren kasura egokituta.

Hala, bigarren gunean, Antzuolan ura zertarako erabili den azaltzen da -garbitzeko, argi-



ERREKA Errekako ekosistema ikus daiteke erakusketan.

JOSETXO ARANTZABAL

indarra sortzeko, larrua lantzeko...; hirugarrenean, hasierako harreman ona zelan okertu zen erakusten da, izan ere, Antzuolak uholde asko izan ditu, eta horietako bat simulatzen da, egileek 1988ko uholdeko argazkiak

ipini dituzte, hori izan zen-eta herriak izan duen txarretako bat. Segidan, uholdeek Antzuolan izandako ondorioak erakusten dira; eta, bukatzeko, Antzuolak hori konpontzeko egin duena: erreka desbideratzea, alegia.

TURISMOA > ARRIKRUTZEN BONBOIAK

Arrikruzeko harribitxiak izeneko bonboia aurkeztu dute

Geologikoki oso preziatua den Arrikruzeko kobako harkaitz batean dago oinarrituta Gozokin enpresak egindako artisau bonboia

azaldu zigun aurkezpen ekitaldian Jon Igartuak, Bidebarri enpresako gerenteak. Halaber, egubakoitzeko aurkezpenean, Jose Mari Ruizek, Gozokin negozioko pastelgileak, eta Jesus Mari Ugartek, Oñatiko enplegu teknikariak, parte hartu zuten.

BI FORMATU

Arrikruzeko kobak ikustera joan diren lehen ehun lagunei, bonboi berria oparitu diete; baina, turistendako ez ezik, merkatura zabaltzea dute helburu.

Oraingoz, hiru lekutan erosi daitezke Arrikruzeko Harribitxiak izeneko bonboia: turismo bulegoan, Arrikruzeko kobako harreran, eta Bidebarri plaza duen okindegian. Etorkizunera begira, beste salmenta puntu batzuk hitzartuko dituzte.



ARRIKRUTZ Argazkian dagoen harkaitzean oinarritu dira artisau bonboia egiteko.

GOIENKARIA

MIREIA BIKUÑA > OÑATI


Arrikruzeko koben inagurazioa aprobetxatuz, Bidebarri enpresako Gozokin negozioak Arrikruzeko Harribitxiak izeneko artisau bonboiak merkaturatu ditu.

"Oñatin txokolateak eta bonboiek duten estimua eta historia kontutan izanda, harkaitz bitxia omentzeko sortu dugu bonboia",

Esne-dun txokolate gaintetik, praline eta krokantia dira osagaiak

Esne-dun txokolate gaintetik, hur praline, almendra txikitua eta almendra krokantia dira Arrikruzeko Harribitxiak bonboiaren osagai nagusiak. Euren dioten bezala, "kalitatezko" produktua egin du Gozokin-ek.

Bi formatutan salduko dira bonboiak: 12 bonboi biltzen dituen kaxa karratua zortzi eurotan salduko da; bestetik, bonboi bakarra duen kaxa euro baten truke erosi daitezke.



Hamabi bonboiko kaxak eta bonboi bakarrekoak salduko dira.

MIREIA BIKUÑA

GIZARTEA > TRATU EGOKIAK

Gaur aurkeztuko dute tratu egokien inguruko kamiseta

Arrasateko Emakumeen Kontrako Biolentziaren Aurkako Plataformak antolatutako kamiseta lehiaketako irabazlea aurkeztuko dute

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Gaur, astelehena, 10:00etan, dira aurkeztekoak Emakumeen Kontrako Biolentziaren Aurkako Plataformak antolatu zuen kamiseta lehiaketako lan irabazlea. Emakume Txokoaren laguntzarekin antolatutako lehiaketa da.

Lehiaketako irabazlea Ene-ritz Iribar zarauzitarra da. Aurkeztutako bost lanen artean hobetsi du epaimahaiak berea (irudian).

Kanpaina horren bidez, Plataformak tratu egokia bultzatu gura du, sexu ezberdintasunaren gaintetik. Herriko jaietara begira aterako dituzte kamisetak, eta bost eurotan salduko dituzte Biona eta Jaizale tabernetan eta, bestalde, Gazte Informazio Bulegoan eta Emakume Txokoan. Batik bat, gazteei zuzenduta dago kanpaina.

Tratu egokien aldeko kanpainaren kamisetak SALGAI

5€

Iratin Bionan Jaizalen Gazte Bulegoan Emakume Txokoan

KAMISETA Kartel horretan agertzen da lan irabazlea.

GOIENKARIA

HEZKUNTZA > MACARTHUR TRESNA

Umeen hizkuntza-garapena neurtzeko tresna, HUHEZIn

Umeek hizkuntza noiz garatzen duten ikertzeko MacArthur tresna euskarara moldatzen dabil HUHEZIn

BI ADIN TARTE, BI GALDETEGI

AEBetan orain hamabost bat urte sortu zen MacArthur tresna, eta bi galdetegi osatzen dute. Lehenengoak neurtzen du zortzi eta hamabost hilabete bitarteko haurren komunikazio-garapena, eta bigarrenak, hamasei eta hogeita hamar hilabete bitartekoena.

Galdetegiak dagoeneko sortuta daude eta argitaratzeko bidean. Oraingo ikasturtean, datuak batzen ari dira.

L.K. > ESKORIATZA

Umeen komunikazio-garapena ikertzeko MacArthur proiektuak erabiltzen dituen probak euskarara egokitzen ari da HUHEZIn. MacArthur proiektua Ameriketako Estatu Batuetan sortu zen, ingelesez. Test horrek neurtu nahi du, gurasoen informazioan oinarriturik, hizkuntzaren garapen goiztiarra, aurreikusteko umeek zer atzerapen izan dezaketenez hizkuntza-garapenean eta, neurri egokiak hartuta, ekiditeko atzerapenek ekar ditzaketenez kalteak.

Proiektua HUHEZIn garatzen ari bada ere, beste unibertsitate batzuetako ikerlariekin batera ari da lan horretan, hala nola, EHUko ikertzaileak, Salamancako Unibertsitatekoak eta Seaskakoak.

BASABE
jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel.: 943 77 07 94
Aretxabaleta

Mondragon Unibertsitateak eta AZK komunikazio enpresak, Gipuzkoako Ganberaren laguntzaz, markaren eta irudiaren kudeaketaren gaineko jardunaldiak egin ditu asteon. Adituek aztertu dute, enpresa eta erakundeen bilakaeran, marka kontzeptuak duen garrantzia. Jardunaldiotan parte hartu du, besteak beste, markaren guru Wally Olinsek.

Asier Albistur > Marken plangintza-egilea

"Baieztapen kapitalista dirudien arren, edozer eta edozein izan daiteke marka"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARETXABALETA
Jardunaldien antolatzaile den AZK enpresan *planner*-marken plangintza-egile- lanetan jarduten du Asier Albisturrek. Marken nondik norako- ez eta *branding* delakoaz eman dizkigu azalpenak.

Zer da marka bat?

Jendeak pentsatzen du marka logotipoa dela, diseinua, baina gehienak erratuta daude. Gure sektorean, marka definitzeko, esaten da edozein pertsonaren burura, enpresa, produktu zein pertsonetikiko elkarrekintzan, etortzen diren ideia, pertzepzio edo emozio andana dela. Hortaz, edozer eta edozein izan daiteke marka bat.

Zer behar du marka batek arrakasta lortzeko?

Jakin behar da barnekoa definitzen, norbera zein den eta horren aurka sekula ez joaten; eta, bestalde, parean dagoena erakartzen erakargarri gerta dakizkiokeen baloreekin. Oreak behar da barne eta kanpokoaren artean. Baina arrakasta ez dago bermatuta, pertsonak ez garela-ko arrazionalak. Markaren oinarrian, emozioak daude, eta oso subjektiboak dira.

Markak berezko izaera eduki eta berrikuntzarako pausoa eman dezake?

Saiatu behar da, nortasuna definitzean, etorkizunean aldatzeko aukera zabalik uzten. Jende askok nahastu egiten ditu bera dena eta sortzen duena. Horrek etorkizunean aldatzeko aukerak ixten ditu.

Zein da markaren garrantzia globalizazioan?

Produktua fabrika liteke, baina kopia erraza da. Marka sortu eta publikoaren aurrean ezberdin kokatuz, inork ez dio kenduko kokapena. Kanpoan ere, espazio berezia izango du. Orain beldurra dago Txinako plagioengatik, eta horren aurrean indarra-ri eusteko modu bat da marka.

Baloratzen da enpresek euren markak babestuta izatea?

Bai, baina sentsibilitate maila ezberdina da sektore eta tokia- ren arabera. Kontsumo sektorean, marken babesean lan handia egin da. Industrian, gutxika bada ere, konturatzen ari dira zein garrantzitsua den marka babestea kopien eta konpetenziaren kontra. Markak balio bat du, eta marka babesteko tresna legalak daude.



AZK komunikazio enpresan dihardu Asier Albisturrek, marken plangintza-egile.

hitz horren jabe izango da. Ez da konpetentzia inor egongo hitz horretaz jabetzeko gai. Babes indar bat izango da inguruan. Hala ere, merkatu bakoitzak ezau- garri propioak ditu, eta toki bate- an indartsu izan arren, ez dago zer- tan denean indartsu izan beharrik. Horretarako, tokian tokiko ezau- garrietara moldatu behar da.

Zein esparrutan du markak garrantzia edo pisu handien?

Jardunaldietan adibide asko landu ditugu, batik bat gure ingur- ruan garrantzia daukan indus- tria sektorekoak. Beti pentsatu izan dugu markak garrantzitsuak direla enpresa eta kontsumitzaile- ren arteko harremanean, bai- na enpresatik enpresarako harre- manean ere garrantzitsuak dira. Bigarren kasu horretan, publizi- tateak ez luke hainbeste pisu izan- go, baina garrantzitsua da izen bat eta ideia batzuk norbere enpresa- rekin lotzea, pareko beste enpre- sa handiagoen aurrean indarra erakusteko. MCC bera aipatu da adibide modura.

Badira gune edo toki zehatze- tan arrakasta duten markak. Gurean bada horrelakorik?

Bai, badira gurean oso sustrai- tuta dauden markak, eta oina- rrian Euskal Herriarekiko lotura dutenak. Hedabideak izan litezke marka; arropa markak ere -Skunk Funk, Kukuxumus, Loreak Men- dian...-; kontsumo marketan, Eroski bera, adibidez.

Marka horiek guretik kanpora zabaltzeko zer egin behar dute?

Kezka egoten da euskal dunta- sun hori azpimarratzerakoan, bai- na ez litzateke beldurrik izan behar. Kontsumitzailea gero eta jakintsuagoa da eta, ideologiak gorabehera, konturatzen da zein marka den ona, zein gustatzen zaion edo zeinen baloreekin egi- ten duen bat. Kukuxumusuk ez du bere euskal duntasuna gorde, bai- na saiatu da hortik ateratzen Espainiako hiri batzuetako kami- seta eta oroigarriak eginez. Eros- ki euskalduna da, baina saiaturen da lau hizkuntza erabiltzen.

Etorkizunean, markek oraingo garrantzi bera izango dute?

Baieztapen kapitalista diru- dien arren, guztiok gara marka. Markek beti izan dute eta izango dute garrantzia, eta ez zentzu komertzialean bakarrik. *No logo* bera marka da, marka zuria ere bai, hiri bat marka bat da...

Publizitatea ezinbestekoa da marka bat aurrera ateratzeko?

Komunikazioa landu behar da; ez du zertan publizitatea izan behar. Norbere nortasunaren eta merkatuaren arabera aukeratu behar da tresna. Batzuek, Internet izan daiteke erabilgarria eta beste batzuek, ez, euren publikoak erabiltzen ez duela-ko. Komunikazio eraginkorrak markari balio handia ematen dio. Baina, marka kudeatzeko, enpresaren alderdi guztiek dute garrantzia: produktuak, zerbi- tzuak, pertsonak...

Kontsumitzaileak zein neurri- tan erreparatzen dio markari?

Beti pentsatu izan da markak kontsumitzaileen gainetik dau- dela, indar handia daukatela eta manipulatzeko gai direla. Horre- gatik, *No logo* edo globalizazioa- ren aurkako mugimenduek mar- ka multinazionalen aurka egin dute. Baina gero eta gehiago ari

EMOZIOAK

"Markaren oinarrian emozioak daudenez, arrakasta ez dago bermatuta"

INDUSTRIA

"Konturatzen ari dira marka babestearen garrantziaz kopien eta konpetenziaren aurka"

'BRANDING'-A

"Norbere herrian marka indartsu bat sortuz gero, kanpoan ere hitz horren jabe izangoda enpresa"

dira konturatzen markak eurak kontsumitzaileek informazio eta indar handiagoa daukatela, batez ere, teknologia berriengatik. Gehiago dira kontsumitzaileek- kin harreman estua eta jarraia lortu nahi duten markak. Esate- rako, Harley Davidson-ek lortu du kontsumitzaileekin komuni- tate bat sortzea.

Zer da *branding*-a?

Marka baten kudeaketa, enpresek eurek zuzendutakoa. Komunikazioaren bidez ez ezik, produktuak, distribuzioak eta prezioak berak ere kokatzen dute marka bat.

Nazioartean lehiatzeko zein era- gin du *branding*-ak?

Norbere herrian marka indar- tsu bat sortzea lortuz gero, mar- ka balio garrantzitsu batekin lotzen bada, Volvo=segurtasuna, kasurako, eta hori jendeak uler- tuz gero, kanpora joandakoan ere

oharrak eta deialdiak

ARETXABALETA

> Malabare ikastaroa antolatu du Loramendik

Uztailaren 3an izango da eta Gasteizeko Zili-purdi taldeak emango du. 16 ordukoa izango da eta izenematea zabalik dago hilaren 28ra arte. Izenematea eta informazioa: 943 77 09 70.

ARRASATE

> EGA ikastaroa emango dute Udal Euskaltegian

San Juan jaien ostean hasiko da ikastaroa. Uztailaren hainbat ordu emango dituzte, eta irailean jarraituko du. Oraindik badago lekua. Horrez gain, uztaileko beste hainbat ikastaro antolatu dute. Informazio gehiagorako, deitu 943 79 70 77 zenbakira.

DEBAGOIENA

> Lankidetzak ikastaroak atzerrian

Bakerako Lankidetzak Batzarrak antolatu ditu, eta udan izango dira. Guatemala, El Salvador, Honduras, Dominikar Errepublika, Maroko, Senegal, Tunisia eta Palestinan. Izenematea zabalik dago ekainaren 30era arte: 944 44 32 07 edo bib@acpp.com.

DEBAGOIENA

> Imersoren oporraldi programan izenematea

Imersok atera du oporraldi programa. Izenematea ekainaren 30a baino lehen egin behar da. Eskaera orriak udalxetean eskura daitezke. Internetez ere egin

daiteke eskaria, www.seg-sicial.es/imerso webgunean.

BERGARA

> Sagarpe elkarteko bazkide izateko deia

Sagarpe elkarteko bazkide izateko interesa daukaten eta 300 euroko sarrera egin ez dutenei, jakinarazi nahi zaie itxaron zerrenda sortu duela elkarteak. Hala, mezu bat bidali behar du dute helbide honetara, izen-abizenak, telefonoa eta mezuaren arrazoi adierazita: sagarpe@yahoo.es.

ARETXABALETA

> Uztaileko areto futbol txapelketa deitu dute

Arlutz tabernak eta Loramendi elkarteak antolatu dute. Izenematea ekainaren 26aren aurretik egin behar da Arlutz tabernan. Taldeak gutxienez hamar lagunez osatuta egon behar du, eta kideek 16 urtetik gora izan behar

dute. Izenematea hamar euro da taldeko. Izena ematerakoan, taldearen izena eta harremanetarako zenbakia eman behar dira. Egutegi eta ordutegiaren berri hila antolatzaileek parte hartuko duten taldeei.

ARETXABALETA ETA
ESKORIATZA

> Udaero 07n izena emateko epea zabalik

12-16 urte bitarteko ei zuzenduta dago. Zazpi ekintza antolatu dituzte uztaileko mendi irteerak, surf ikastaroa... Banaka zein guztietan eman daitezke izena. Informazio gehiagorako: 943 79 54 46 edo 605 70 89 46. Izena emateko azken eguna hilaren 22a da.

ARRASATE

> AEK-k udako ikastaro trinkoak egingo ditu

Helduen euskalduntze-alfabetatzean dau den maila begirako lan-

keta berezia egingo dute ikastarootan, eta material zehatza prestatu dute horretarako. Ikastaroak 80 ordukoak izango dira, eta 20 egunez emango dituzte. Uztailearen 29an hasiko dira eskolak, eta 27an bukatu. Izenematea epea 22an bukatu da. Horretarako, Erdu euskaltegiara jo edo deitu 943 77 03 69 telefono zenbakira.

BERGARA

> Udako ikastaro trinkoak antolatu ditu Udal Euskaltegiak

Hilaren 26tik uztailearen 20ra arte izango dira. Izenematea gaurtik hilaren 22ra arte egongo da zabalik. Bulego ordutegia 08:00:12:30-14:30-18:30 da. Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko: 943 76 44 53 edo berg.eusk@udal.gipuzkoa.net.

ARETXABALETA

> Lorezaintzaren gainerako ikastaroa antolatu du Loramendik

Hilaren 20an eta 27an izango da ikastaroa, 18:00-20:00. Lehenengo egunean kanpoko loreen gainean jardungo du Blanca Perak; bigarrenean, barrukoen gainean. Izenematea zabalik dago eta doan da.

ARRASATE

> Euskalaneak batzar orokorra deitu du

Hilaren 21ean izango da, 18:30ean, Kulturaren.

etxeko leihotik



Usoa Agirre > Goienako Telematika saileko arduraduna

Belaunaldien arteko transmisioa

Datorren aste bukaeran da San Juan eguna, eta bezperan, ohiturari jarraituz, sua egingo da leku askotan. Udako solstizioari ongiatorria egiteko hasi ziren sua egiten gure arbasoak, eta gaur arte iraun du ohitura horrek. Beste ohitura asko moduan, hau ere urtero errepikatzen dugu, benetan zer esanahi duen jakin barik. Ohiturek eta beraien esanahiek iraun dezaten, beharrezkoa da belaunaldien arteko transmisioa. Iruditzen zait transmisio eta elkartruke horretan kale egin dugula gure belaunaldikook, eta altxor preziaz bat galdu dugu.

Horregatik, interesgarriak iruditzen zaizkit gure aitona-amonek gordeta dituzten altxor horiek berreskuratzeko egiten diren lan guztiak. Beste herri batzuetan bezalaxe, Antzuolan Antzuolarrak Berbetan lana egin dute Badihar-duguk eta Udalak, beste hainbat kolaboratzailearen laguntzaz. Lan hori Interneten ikusi eta entzuteko aukera izan dut, eta esan beharra dago lan bikaina egin dutela. Zorionak horretan parte hartu duzuen guztioi, eta ea zerbait ikasterik lortzen dugun.

"Transmisioan kale egin, eta altxor preziaz bat galdu dugu gure belaunaldikook"

> San Juan bezperako sutara botatzen dira gauza zaharrak, berriei ongiatorria egiteko. Hauteskundeak pasa berri diren honetan ondo etorriko zaie politikariei ere lehengo garaia sutara botatzea.

> Gauza zaharrak sutara bota eta, hala ere, bizitzarekin gustura ez dagoenak badu beste aukera bat: sortu *Second Life*-n izatea gustatuko litzaizukeen pertsona hori eta nahi duzuna izan mundu birtualean.

debagoiendarak kanpoan

Igor Leturia > Arrasate

"Inguruko edozein herrira joateko, tren, topoa eta autobusa dauzkagu"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Igor Leturia Azkarate pertsona arrunta da, Erreterian bizi den arrasatearra. Horrela aurkezten du Leturiak bere burua eibar.org/blogak/e-gorblog blogean. Orain lau urte joan zen Leturia Arrasatetik; gaur egun, Erreterian bizi da neska-laguna eta bi umeekin. Internet gustuko du Leturiak; han, *e-gor* bihurtzen da, ziberespazioko informatikaririk komikizaleena.

Zenbat urte daramazu Erreterian bizi izaten?

Orain dela lau urte etorri nintzen. Neska-laguna hangoa da, eta hara bizi izatera joatea erabakita genuen; inguruan lan aukera interesgarri bat sortu zenean joan ginen. Ordura arte, Arrasaten bizi izan nintzen, ikasketak eta lana ere Arrasaten

neuzkan betidanik, urte batez Toulousen izan nintzen garaian izan ezik.

Nola ikusten da Arrasate, eta orokorrean Debagoiena, Erreteriatik?

Ikusi ere ez da egiten! "Han, zuloan" bizi ei gara... Jende asko Debagoiengan inoiz izan gabea da. Badakite gurean kooperatibaketa daudela, baina ezer gutxi gehiago.

Zer ekarriko zenuke Erreteriatik Arrasatera?

Erreterian, batez ere, eskualdeko herrien arteko garraio publikoa dute ona. Pentsa, inguruko edozein herrira joateko, tren, topoa edo autobusa daude, ia bost minutu aukeraren bat. Gainera, oso gertu geratzen da Donostia, han-



GOIENKARIA

Erreterian bizi da

Orain lau urte arte Arrasaten egiten zuen lan; gero, Erreteriarra joan zen. Bi seme-alaba ditu.

go kultur, aisialdi eta erosketetarako aukera guztiak. Eta hondartzak ere, gertu dauzkagu.

Ziberespazioko informatikaririk komikizaleena izanda, zein eratako komikia egingo zenuke gure ibarreko herri eta jendearekin?

Beharbada, bertako historiaren pasarte garrantzitsuenak kontatuko nituzke, hala nola bandoen arteko gerrak, abertzale-tasunaren sorrera, gerra eta diktadura, kooperatibismoa... familia bateko hainbat belaunaldiko kideen bizipenen bidez.

Baina ni ez naiz komikigilea, komikizalea soilik! Arrasaten girotutako komiki eder asko egin dute orain dela gutxi Unai Busturiak eta Julen Ribasek, *Numenak* izenekoa, mitologia,

historia eta gaur egungo bizitza kontatzen dituen. Hori gomen-datuko nuke.

Erreteriarra bisitan joaten zaizkizun lagunei zer erakusten diezu?

Inguruak: mendialdea, Oiarzungo bidegorria, Aiako Harria eta Nafarroarantz ematen duten beste mendiak... Erreterian herriak berak ez du ikusteko askorik, nahiko itsusia da.

San Juan jaietan, etorriko zara Arrasatera?

Aurten, ez dut uste joango naizenik. Lehen, dena gustatzen zitzaidan; batez ere, lagunekin parranda egitea, baina baita egunez antolatutako gauzak ere. Azken urteetan, umeekin, egunez ibili izan gara.

kale inkesta

Eguraldi ona egiten duenean, hondartzara joateko ohitura izaten duzu?

M. Tere Galdos
Langilea
Oñati

Egia esan, orain arte egin duen eguraldiarekin, aukera gutxi izan dugu hondartzara joateko; normalean, hur-biltasunagatik, Debako hondartzara joaten gara. Alabekin igerilekura ere joaten gara.

Otilia Mancebo
Langilea
Oñati

Ez dut gidatzeko baime-nik, hortaz, hondartzara oso gutxitan joaten naiz. Eguraldi ona egiten duenean, Landara joateko ohitura dugu. Landa oso ondo prestatuta dago, eta gustura egoten gara bertan.

Amelia Aldas
Langilea
Oñati

Asko gustatzen zait hondartzara joatea; hala, ahal dudanean, Deba edo Donostiako hondartzetara joaten naiz. Oro har, esan behar dut nik ezagutzen ditudan hondartzak nahiko garbiak daudela.

Jaione Bastardo
Langilea
Oñati

Gu, normalean, Navarreteko kanpinera joaten gara aste bukaera guztietan.

Bada, Oñatin geratzen garenean, hondartzara joateko ohitura dugu; normalean, Debako hondartzara.

zorroztailea



Markos Balentziaga

Ereserkia

"Españiako ereserki ofizialaren letra asmatzea dute helburu; Luis Alberto de Cuenca, Abelardo Linares, Ramiro Fonte eta Jon Juaristi dira lau poeta handi goratsuak (...). Jon Juaristik berak eman zuen, herenegungo ABCen, lau poetek egindako bileren bertsioa".

Anjel Lertxundi
Berria > 2007-06-15



Hedabideetan dabil Españako ereserkiari berbak ipini bihar jakozeneko kontua, españar kirolari ponpoxuenak-eta, umezurtz-berbazurtz aurkitzen ei diralako podium loriatuetara igotakuan, Españari gorak eta gorenak kantatu eziñik.

Anjel Lertxundik joan dan egubakoitzeko *Berria*-n jaso zeban Españako ereserkiaren hitzen sortze-lanetan etorri haundiko espiritu santu bat dabillega beste hirurekin batera: Jon Juaristi.

Nazionalismo espainola sahiets askoko morroia da: "constitucionalismo" dinotse orain; "Glorioso Alzamiento" izan zan XX. mendeko urte-sorta eder baten. Zer komeni, harako narrua jantzen daki.

Jon Juaristi euskal literaturaren aztertzaillia hor ibilliko da fin-fin. Ez da, baña, lehen euskalduna espainol nazionalismuaren aldeko jardunian dabilena. Gure artian, esaterako, ezagun-ezaguna da *Cara al sol* kanta faxistaren musika-sortzallia Telleria zegamarra izan zala. Eta kanta horren berorren berben asmatzaillien artian dago Falange Espainolaren guraso be izan zan Mourlane Mitxelena euskal poesiaren aztertzaillie irundarra.

Kontua da Europako mendebalde honetan nazionalismo aitortu, aztertu, gurtu eta egurturik badago, hori euskal nazionalismua dala. Euskal abertzaletasunak ez dauka ezer ezkutatzekorik: marka klasiko guztiak ezagun-ezagunak eta txalotuak bezain kritikatuak ditu: gauzak izaten baitira eder ala itsusi... zein begik ikusi; marka horretako batzuk, gañera, oldar eta bultzada haundikuak dira: hizkuntza, lurraldetasuna, historia, bandera... baña ereserkia? Nun demonio geratu da ereserkia? Zenbaterik ezagutzen dau? Zenbat lagun da kantatzeko gauza?

Esango neuke euskal nazionalismuak ereserkiarekin daben harremana lauso eta ipotx samarra dala. Alde ederreko lekua hartzen dau *Els segadors*-ek katalanen artian!

irakurlearen txokoa

943 25 05 02

goienkaria@goiena.com

BERGARA

> Edateko ura, berdeguneak ureztatzeko ez

"Bai, oso ondo dago berdeguneak egitea... Baina, berdeguneak adina garrantzitsua da ura! Eta, gurean, betidanik, edateko ura erabili izan da herrian ureztatzeko eta garbitzeko. Horregatik, hona nire proposamena udal agintari berriei: zergatik ez birziklatutako ura erabili? Eragin berbera izango du, eta edatekoa ez da alperrik galduko", diosku Bergarako irakurle batek.

ARRASATE

> Hondartzazaleendako autobusa

Hondartzara ahalik eta gehienetan joaten da Arrasateko irakurle hau, baina ez gura adina, eta hauxe komentatu digu: "Behar bada larregi eskatzea da, bailaran oraindik dugun garraio eskasia kontuan hartuta; baina ezingo litzateke Debaraino autobusa jarri, aste bukaeran, gutxienez? Ziur nago errentagarria izango litzatekeela, jende asko autoz joaten da-eta hondartzara, eta urtegia gustuko ez dugunak asko gara".

BERGARA

> Kultura etxe berriaren zain

Kultur etxera sarri joaten den bergarar batek aurreko udal arduradunak zoriontzen idatzi digu: "Azkenean aurkeztu dute liburutegi berriaren proiektua. Bergara bezalako herri batek merezi du Arrasaten edo Oñatin duten kultura etxe moderno, atsegin eta ondo hornitua. Ea, bada, ahalik eta lasterren egiten duten!"

ustek uste

Eduarne Burgaña

Eguzkia neurritz hartu behar da

Pasa den astean, ASTELEHENEN GOIENKARIA-ko inkestako galdera honako hau izan zen: "Neurritz hartzen duzu eguzkia?" Baietz erantzun zuten guztiak, kremak-eta ematen dituztela, baina ez nago oso ziur egia ote den.

Nik neuk azalean igarri dut eguzkia neurririk gabe hartzearen ondorioa. Crema gaizki eman, eta zatika erreta amaitu nuen orain astebete pasatxo, eta oraindik ere arrastoak ditut gorputzean. Normala da, kostakoa izan eta egun librea duzun horretan, eguzkia ikusi eta hondartzara joatea. Baina kontuz, askotan, beltzaran egotearen gehiegizko nahiak txorakeriak egitera erroten gaitu-eta. Nik bost ordu eman nituen eguzkipean etzanda; eta beste bost egun pasa, gorputza minberatuta.

Goienkaria

Argiraratzaila Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Leire Kortabarria Erredakzioa Mireia Bikuña, Arantza Ezkibel, Irati Agirreazaldegi, Eduarne Burgaña Oinarritzko diseinua Golo Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazioa Imanol Soriano Publizitate arduraduna Mireia Larralaga Harpidetza eta banaketa Miren Agirre Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Oñati Lizenziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



ALKATEAK Irudietan, Debagoiengan 2007-2011 agintaldian egongo diren bederzti alkateak, zapatuko osoko bilkurretan.

J. ARANZABAL, O. ELORZA, A. BARRUSO, E. MENDIBIL, U. MADERA, I. BARANDIARAN, J. SASIAIN

DEBAGOIENA > UDAL BERRIAK ERATU ZITUZTEN ZAPATUAN

Oro har, osoko bilkurak lasaiak eta bizkorrak izan ziren, eta ez zen ezusterik izan; aurrez ikusitakoa bete zen

Aurrez ikusitakoak izendatu zituzten alkate zapatuan

Aretxabaletan eta Oñatin, EAeri eskua luzatu zieten izendatutako alkateek

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA
Zapatuan osatu ziren Debagoiengo bederzti Udalak. Oro har, normaltasunez egin zituzten osoko bilkurak.

Orduz geroztik, oso desberdina da eskualdeko udalen mapa. Hala, Eusko Abertzale Ekintzak bost alkatetza ditu: Arrasaten, Ino Galparsoro izendatu dute

alkate; Bergaran, Agurne Barruso; Eskoriatzan, Pedro Lasagabaster; Antzuolan, Pedro Iturbe; eta Aramaion, Asier Agirre.

Aretxabaletan, EAEk lortu zuen boto gehien, baina, han balio gabetu egin zituztenez, Aralarko Inaxio Garro izendatu zuten alkate. Ikusmin handia zegoen Aretxabaletako bilkuraren inguruan,

baina ez zen istilu larririk izan. Garrok eurekin jesartzera gonbidatu zituen, botoak kontatu balira, zinegotzi izango ziratekeen EAEko lau ordezkariak, eta Aralarko, EAKo eta EAJko ordezkari banak ez zuten zinegotzi kargua hartu.

Oñatin, boto gehien lortu zituen EAJko Lourdes Idoiak

jarraitzen du alkate. Hori bai, EAJk ez zuen eserleku bat hartu. Oñatin, Aretxabaletan eta beste herri batzuetan ere, EAEk protesta egin zuen udaletxeetan zein kalean.

Elgetan, Aralarko Oxel Erosarbe da alkate berria, 31 urtean karguan egon den Patxi Basauri-ri erreleboa hartuz.

POLITIKA > UDALBATZA ERAKETA

Ezuste barik, EAeko Ino Galparsoro alkate da 2007-2011 legealdirako

Galparsorok esan zuen "herritarren protagonismoa lehen lerrora eramaten saiatuko" direla

Hori irudikatu guran, osokoa bukatuta, udaletxeko leihoak zabaldu zituzten plazan zeuden herrikideei

UBANE MADERA > ARRASATE

Aurreikusitakoa bete egin zen zapatuko udal eraketan. Alkatea aukeratzeko bozketan, Eusko Abertzale Ekintzako zerrendaburu Ino Galparsorok zortzi boto eskuratu zituen -EAeko zinegotzien zazpi eta Aralarrekoen bat-; gainerako alderdiek norbere alderdiko zerrendaburuaren alde bozkatu zuten. Hori horrela, eta gehiengo absolutua hautagaie-tako batek ere lortu ez zuenez,

automatikoki hauteskundeetan boto gehien eskuratu zituen alderdiko zerrendaburu moduan, Ino Galparsorok alkate kargua hartu zuen, Adin Mahaiaren aurrean "legeak behartuta" zin egin eta gero. Txalo artean hartu zuen kargua, osoko bilkuren aretoa jendez gainezka zegoen-eta, gehienak ezker abertzalearen aldekoak. Haietako batzuek, besteak beste, demokraziaren aldeko zerbait oihu egin zituzten.

Bestela, normal egin zen oso bilkura. Kargua hartzean, berba batzuk egin zituen alkate berriak. Une "gazi gozoa" dela esan zuen, "boto eskubidea ez delako errespetatua izan Euskal Herrian eta aspaldi bizi dugun gatazka egoeraren irtenbideak oztopoz beterik jarraitzen" delako. Halaber, zera ere gaineratu zuen: "Herritarrok eman duzuen erantzun paregabea ikusita, konponbiderako irteerak bilatzen saiatu beharra daukagu". Bukatzeko, honakoa nabarmendu zuen: "Arrasateri dagokigunez, herritarren protagonismoa lehen lerrora eramaten saiatuko gara". Eta hori irudikatu guran, udaletxeko leihoak zabaldu zituzten plazan zain ziztuztenei, etxafuego eta txalo artean.

UDALBATZA, OSATUTA

Udalbatza osatzen duten gainerako zinegotzi gehienek ere legeak behartuta zin eginda hartu zituzten karguak.

Beraz, honelaxe geratu da eratuta Arrasateko udalbatza datozen lau urteotarako: EAE: Ino Galparsoro, Oihana Aranburu, Arkaitz Biain, Yolanda Perez de Arenaza, Juan Mari Sanpedro eta Izadi Mondragon. PSE-EE: Paco Gartzia, Miren Lorea Lana, Gregorio Atxutegi eta Carmen Atxutegi. EAJ: Luis Mari Apraiz, Rafael Uribarren, Amaia Zeziaga eta Jose Ramon Uribarren. EB-Zutik: Joseba Ugalde, Ander Rodriguez eta Julia Monge. EA: Pello Urizar. PP: Itziar Lamarian; eta Aralar: Joxe Etxeberria.

GEHIENGO BARIK

Gobernu eraketari dagokionez, berriz, hauteskundeetan, 3.333 boto eskuratu zituen EAek, boto guztien %29,74. Horrek, guztira, zazpi zinegotzi eman dizkio. Dena den, Arrasateko udalbatza 21 zinegotzik osatzen dute, beraz, etorkizunean EAek gehiengoarekin (11 zinegotzi) gobernatu gura badu, hitzarmena lortu beharko du bestelako alderdi bat edo batzuekin.

Udal eraketa aurretik dabil gobernu eraketa negoziatzen EAek. Oraingoan, EB-Zutik koalizioarekin, EAekin eta Aralarrekin berbetan izan da, eta oraingoan, Aralarrek eta EAek ezezkoa eman diote. Datozen asteak erabakigarriak izango dira, beraz, gobernu berria osatzeko.



UDALBATZA BERRIA PSE-EEko zinegotziek uko egin zioten udalbatzaren lehen argazkian azaltzeari, "ofizial egin arte", Paco Gartziaaren esanetan; gainerako alderdi guztietako zinegotziak azaltzen dira argazkian.

u.m.

Ino Galparsoro > Arrasateko alkatea 2007-2011

"EA eta Aralarrek ezetz esan digute; seguruenik gutxiengoan gobernatuko dugu"

u.m. > ARRASATE

Alkate kargua hartu eta lagun eta alderdikideen zorion agurrak jaso ostean, aurreneko berbak esan dizkio GOIENKARIAri Ino Galparsorok.

Lehenagotik ia segurua izan arren, zela sentitzen da norbera alkate kargua hartzen duen ulean?

Arduraren zama igartzen da.

Orain, 30 egun dituzue aurreneko izendapenak egin eta Udalaren berran-

tolaketa pentsatzeko; aldaketa asko etorriko direla aurreikusten duzu?

Uste dut oraindik azkarregi dela hori esateko, baina, bai, gure asmoa da zenbait gauza aldatzea.

Gaur, adibidez, udaletxeko leihoak zabaldu egin dituzue...

Bai, azken lau urteotako gobernuaren jarrera salatze eta datozen lau urteotan guk izango dugun jarrera islatzeko; leihoak zabaldu ditugu zerbait sinbolikoa egin nahian.

Orain, epe motzera begira, gobernu osatzeko elkarrizketekin segituko duzue?

Ikusi behar zela doazen negoziatzaioak gobernu antolatze. Dagoeneko, badakigu Aralarren eta EAren erantzuna. Biek ezetz esan digute; badirudi, gaur egungo egoeraren aurrean, gobernuan ez sartzea erabaki dutela. Egoera horrek, seguruenik, gutxiengoan gobernatzera eramango gaitu. Dena den, Ezker Batua-Zutik Koalizioarekin ere izan gara berbetan.



u.m.

Gobernu osatzeko elkarrizketek gainera, oposizioarekin ere egingo duzue berba?

Bai, akaso ekainean bertan; bestela, uztailean, gure funtzionamendua eta gure asmoak azaldu eta euren planteamenduak entzuteko.

Zerbait gehiago esan gura baduzu...

Eskerrak eman gurako nizkioke herriari, eman duen erantzunarengatik eta gure alderdian ipinitako konfiantzarengatik.



UDALBATZA BERRIA Irudian, zapatuan kargua hartu zuten zinegotzi berriak: EAEk sei ordezkari ditu; EAJk, bost; Aralarrek, hiru; eta EAK, bakarra.



E.M.

Agurne Barruso >
Alkatea

"Gobernu paktu batekin, egonkortasuna izan nahi dugu"

E.M. > BERGARA

Agurne Barruso (38 urte) izango da Bergarako alkatea datozen lau urteotan. Elhuyar Aholkularitzan dabil lanean, eta hiru seme-alaba dauzka.

Gaur Aralarren babesa jaso duzue. Udal gobernu osatzeko lehen urratsa da hori?

Gauzak itxi barik daude, oraindik ez garelako sartu programak adosten. Ez dugu gobernu akordio egin oraindik. Borondatea bada, gaur ikusi denez. Guk ahalegin guztiak egingo ditugu Aralarrekin ezkerreko gobernu abertzale bat osatzeko, eta uste dugu beraiek ere jarrera hori dutela.

Gobernukideak izango dituzue, beraz.

Nahiago dugu akordio sendo bat lortzea, horrek gobernuari egonkortasun handiagoa ematen diolako. Herriarendako hobea dela uste dugu.

Lanean hasteko ordua da. Zeri eman-
go diozue lehentasuna?

Arau subsidiarioak aztertzea izango da lehentasunezko lanetako bat; Zabalotegiko bidea hor dago-gu kontra agertu gara- eta beste proiekturen batzuk ere berraztertu nahi ditugu. Egoera ekonomikoa ere sakon aztertuko dugu, zer egin daitekeen ikusteko. Era berean, herritarrekin harremanak sendotu nahi ditugu, eta euren iritzia jakiteko bideak ireki.

Agurne Barrusok bederatzita boto jaso zituen, EAE-ANVrenak eta Aralarrenak; German Muruamendiarazek (EAJ) sei boto eskuratu zituen

POLITIKA > UDALBATZA ERAKETA

Herritarrei hitza emateko gertu azaldu da Agurne Barruso alkatea

EDU MENDIBIL > BERGARA

Agurne Barruso da lehen emakumezko alkatea Bergaran. Eusko Abertzale Ekintzako (EAE) zerrenda-buruak bere alderdiki-deen eta Aralarren babesa jaso zuen zapatuan. German Muruamendiaraz EAJko hautagaiak sei boto eskuratu zituen, jeltzaleen ordezkariak eta EAko zinegotziarenak. Ikusmin handia piztu

zuen udalbatzarrak, eta osoko bilkuren aretoa jendez lepo zegoen.

Beraien karguak sinatzerakoan, EAE eta Aralarreko zinegotziak eta EAJko zenbaitek ere "legeak behartuta" egiten zutela adierazi zuten, bildutakoan txaloen artean. Alkate izendatu ostean, Agurne Barrusok euskal pre-soak eta iheslariak zein Bergara Aurrerako zinegotziak gogora

ekarri zituen: "Azken hauen lanik gabe ez ginateke gaur hemen izango. Eskerrik beroenak Jesus Mari Garitano, Mikel Eguren, Maite Guridi eta Mila Elortzari".

Udaleko lana herritarrei zabaltzeko gertu agertu zen, jendearengana zuzenduz: "Zuena da hitza, gurea erantzukizuna eta denona lana". Gainerako zinegotziak hitza eskaini zien, baina Iñi-

go Iñurrategi (Aralar) izan zen bakarrik hitz egiten. Barruso zoriondu eta politika abertzale ezkerreko egiteko premia azpimarratu zuen.

Hutsune nabarmen bat izan zen zapatuan: azken 16 urteotan alkate izan den Victoriano Gallastegi ez zen plenoan izan. Bukar-
an, *Eusko Gudariak* abestu zuten herritar askok.



IKUSMINA Osoko bilkuren aretoa bete egin zen zapatuan.

E.M.



PROTESTA Osoko bilkuraren aurretik, EAEn jarraitzaileek enkartelada egin zuten San Martin plazan.

E.M.

POLITIKA > UDALBATZA ERAKETA

EAJk ez du azken eserlekua hartu; EAk, PPK eta koalizioak, aldiz, bai

Koalizioak hartu egin du, baina ez du erabiliko; komisioetan egongo da, baina ez osoko bilkuretan

Lourdes Idoiaga izendatu zuten Oñatiko alkate zapatuan, EAJ eta EA alderdien botoei esker

OIHANA ELORTZA > OÑATI

Ustekabea izan zen zapatuko osoko bilkuran, inbestidura egunean. EAJk eman zuen sorpresa. Alkate berriaren bozketan egin aurretik, Lourdes Idoiagak adierazi zuen bere alderdiak uko egingen zioela zortzigarren eserlekuari. Felipe Lizaurrek ez zituen bere kredentzialak aurkeztu, baina bai Marijo Etxegoienek. Horrela, Mikel Iturrospe izango da zazpigarrena, eta Etxegoienea hutsik geldituko da. EAE-ANV alderdiak eskaera egin zuten EAJri, EAri, PPri eta Oñati Ezkerretik koalizioari azken eserlekuak ez hartzeko. EAJk erabaki du eserleku hori hutsik uztea, baina beste hiru alderdiek hartu egin dute. Hala ere, koalizioak ez du eserlekua okupatuko; hau da, kargua hartu egin du, baina esan du ez duela osoko bilkuretan erabiliko. Aurrerantzean, beraz, 15 zinegotzi egongo dira udalbatzan, 17 egon beharrean.

Bozketaren emaitza hau izan zen: Lourdes Idoiaga (EAJ): 10 boto, EAJ eta EArenak; Karmelo Perez de Almaraz (Oñati Ezkerretik): hiru boto; Blanca Roncal (PSE-EE): boto bat; Julio Perez de Arriluzea (PP): boto bat; eta boto zuri bat.

"ERRESPECTUA ETA ARDURA"

Legez kanpo utzi duten EAE-ANV alderdiarekiko "ardura eta errespetua" izan da EAJk eta koalizioak eman duten arrazoia hartu duten erabakia hartzeko. "Erabakia zaila izan da, baina eserlekua hartu dugu, batetik, botoa eman diguten herritarrei errespetuagatik, eta bestetik, badakigulako eserleku hori beste batek bete beharko lukeela", esan du Manu Egañak, koalizioko laugarren zinegotziak. Hala ere, aurreratu du komisioetan parte hartuko duela, baina ez bozketetan.

EAKo Iñaki Galdosek, zerrendako hirugarrenak, hartu zuen



UDALBATZA Datozen lau urtetako udalbatzaren argazkia (PPko zinegotzia falta da).

O.E.



EAE EAek legezkiou lau eserlekuak eskatu zituen osoko bilkuran.

O.E.

bere jesarlekua. Aldizkari honek galdetuta, ordea, ez zuen horren inguruko inongo komentariarik egin gura izan. Alderdia gaur, astelehena, da EAJrekin Diputazioa osatzeko negoziazioak hasitekoa.

EAE alderdiak lortu zituen lau zinegotziak osoko bilkuren artoan egon dira, udalbatza berriaren eta inbestidura ekitaldira

joandako herritarren artean. Alkate berria, Lourdes Idoiaga, izendatu ostean, Idoiagak hitza eman zion Marijo Altube EAE-ANVko zerrendaburuari. Alkate berria zorionduz eta EAJk hartutako erabakia urrats garrantzitsua dela esanaz hasi zuen Altubek diskurtsoa. "Herritarrek adierazi duten borondatea ez da errespetatuko hainbat Udaletan,

tartean Oñatin", gogorarazi zuen Altubek. PPko zinegotziak, Julio Perez de Arriluzeak, irten egin zuen osoko bilkuren aretotik Marijo Altube EAeren iritzia ematen hasi zenean.

Bestalde, osoko bilkuren aretorra jende asko joan zen. "Hau ez da demokrazia", "putxerazorik ez" edo "lapurrak" oihukatu zuten hara joan ziren batzuek.

Lourdes Idoiaga > Oñatiko alkatea 2007-2011

"Arduragatik hartu dugu erabaki hori; denok jarri behar dugu zerbait, eta herriaren alde da"

O.E. > OÑATI

Lourdes Idoiaga (EAJ) izango da Oñatiko alkatea datozen lau urtetan. EAJko (zazpi) eta EAKo (hiru) botoak jaso ditu.

Zorionak!

Eskerrik asko.

EAJk zortzigarren eserlekuari uko egingea sorpresa izan da. Zergatik hartu duzue erabaki hori? Zaila izan da?

EAE Oñatin legezkoa ez zela izan gogojakin genuenean, egoera aztertzen hasi ginen. Sakon aztertu dugu gaia. Arduragatik hartu dugu erabaki hori;

hemen denok jarri behar dugu zerbait normalizaziorako bidean. Herriaren alde egin dugu erabaki hori hartzeko orduan.

Izan duzue arazorik alderdiarekin, erabaki hori hartzearen?

Alderdi bakoitzak bere gomendioak ditu, baina EAJn ez da inposaketarik egon. Sentitzen dugu gomendio hori ez jarraitzea, baina guk geure nortasuna erakutsi dugu.

EArekin osatuko duzue gobernuak?

Bai, adostu dugu dagoeneko. Gobernu batzordean hartuko dute

parte, eta batzordeburuak ere izango dira. Orain arteko sintonian jarraitzea espero dut.

Zein leku izango du EAEk?

Gaurko pausoa garrantzitsua izan da, eta aurrerantzean elkarlanean jarraitzea da asmoa. Gure komisioetan parte hartzea da asmoa.

Udala antolatzeko 30 eguneko epea pasa eta gero, zein izango da lehenengo egin beharra?

Uztail hasieran egingo dugu osoko bilkura dena martxan jartzeko, eta lanean hasiko gara.



O.E.

ARETXABALETA > UDALBATZA ERAKETA

Lasaitasun osoz izendatu zuten Inaxio Garro alkate

Hiru zinegotzik ez zuten kargurik hartu: Aralarkoak, EAKoak eta EAJkoak

Alkateak osoko bilkurako mahaiaren bueltan jesartzera gonbidatu zituen EAEko kideak

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Lasaitasuna izan zen nagusi datozen lau urteotarako Udalaren eraketan. Aralarko Inaxio Garro hautatu zuten alkate, gehiengo osoarekin.

GARROK, ZAZPI BOTO

Hiru ordezkari ez ziren jesarri osoko bilkurako mahaiaren bueltan, eta ez zuten zinegotzi kargurik hartu: Aralarko Jon Ander Loidik, EAKo Andres Lezetak eta EAJko Neida Gabilondok. Hortaz, hamar kidek osatuko dute udalbatza. Ostean, alkatea izendatzeko bozketa egin zuten, eta Garrok zazpi boto jaso zituen, Aralarkoak, EAKoak eta EAJkoak; bi, PSE-EEko Ainhoa Sagarribaik eta nulua izan zen azkena.

ALDERDIEN IRITZIAK

Hainbat adierazpen egin zituzten gero alderdietako zerrendaburuek. Garrok jakinarazi zuen akordioa sinatu dutela Eusko Abertzale Ekintzak, EAK eta Aralarrek, herrian sortutako egoerari irtenbidea topatu eta lanean hasteko oinarriak zehazteko; eta Alderdien Legearen ondorioz legez kanpo utzitako EAEko ordezkariak gonbidatu zituen osoko bilkurako mahaiaren bueltan jesartzera.

EAJko Arritxu Olidenek adierazi zuen Garrori botoa eman ziotela, Aralarrekin hala adostu zutelako; bazutela Udalaren jardun onaren aldeko akordioaren berri, eta begi onez hartu zutela. Horregatik, ekimenari aterik ez



UDALBATZA EAEko kideak osoko bilkurako mahaiaren eserita, alkateak gonbidatuta, eta udalbatzaren argazki ofiziala. J.A./M.A.

ixteko, hirugarren zinegotzia ez hartzea erabaki zuten.

EAEko kide Anjel Bergaretxek, ostera, bi eskaera egin zituzten Aralarri: legeak babestuta hartu dutela alkate kargua, baina "ez nahasteko legea eta demokrazia"; eta "zintzoak" izateko. Hala izanez gero, ondoan izango dituz-

tela Aretxabaleta eta herritarren alde lan egiteko gaineratu zuten.

PSE-EEko Sagarribaik erantzun zien EAEko kideei demokrazia ulertzen dutela legeak errespetatuz, eta horregatik izendatu dutela Garro alkate; eraso izan zutela etxean eta oraindik ez dutela kondenatu gaineratu zuten,

eta "badela garaia" biktimen alde zer edo zer esateko.

EAKo Lore Martinezek Aretxabaletan lortutakoa eredu izatea gurako luketela aipatu zuen.

Behin Udala eratuta, elkarretaratzea egin zuten udaletxe aurrean hainbat herritarrek, *Apartheidik* ez leloarekin.

ESKORIATZA > UDALBATZA ERAKETA

EAEko Pedro Lasagabaster aukeratu dute alkate

Bozketan, EAEn eta Elizateak taldeko botoak jaso zituen, baina ez gehiengo osoa; hortaz, Gobernu osatzeko hitz egingo dute

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Aurreikuspenak bete egin dira: EAE-ANV alderdiko Pedro Lasagabaster da Eskoriatzako alkatea zapatutik. EAEko eta Elizateak taldeko botoak jaso zituen; bost guztira. Ez zuen gehiengo osoa lortu, baina udal hauteskundeetan EAEna zerrenda bozkatue- na izateagatik, Lasagabasterrek eskuratu du alkatetza.

EB-Berdeak-Aralar taldeko Juan Luis Merinok bere buruari eman zion botoa. EA, EAJ eta PSE-EEko ordezkariak, berriz,



UDALBATZA BERRIA Argazkian, zapatuko osoko bilkuran karguak hartu zituzten zinegotziak eta alkatea.

IKER BARANDIARAN

boto zuria eman zuten bozketan; hala, ez zuten beste inoren alde egin. Bozketa egin bezain laster, Elizateetako Leire Okarantzak jakinarazi zigun baserri auzo-

tako taldeak beti zerrenda bozkatuenaren alde egiten duela, eta oraingoa ere hala egitea erabaki zutela. Adin Mahaia osatu dutenak, berriz, EAJ taldeko

Begoña Eraña eta EAE taldeko Ander Agiriano dira.

Ertzantzaren furgonetak goizeguerdiko osoa egin zuen plaza parean, baina ez zen inolako arazo-

rik izan. Osoko bilkuren aretorea herritar asko joan ziren, eta Lasagabasterren izendapena txaloka hartu zuten.

ORAIN DELA 8 URTEKO LEKUKOA

Alkatetza hartu ahala, Lasagabasterrek salatu zuen EAEk ezin izan duela herri guztietan karguak hartu. Euskal Herriko egoera politikoari eta su-etenaren bukaerari konponbidea bilatzen saiatuko direla ere azpimarratu zuen Eskoriatzako alkateak.

Bestalde, nabarmendu zuen EAEk orain dela 8 urte Edorta Zubizarretaren lantaldeak hasitako lana eta Dorleta Kortazarren jarraitutakoaren lekukoa hartuko duela: "Haiek egindako lana eskertu behar dugu; eta gaurtik aurrera lanari ekin".

Jarraian. Ibarraundi museora jo zuen Lasagabasterrek, orain arte Elizateetako zinegotzi izan den Javier Villar ezkontzera. Ukitu dotorea eman zioten bilkurari Elizateetako ordezkariak.

ANTZUOLA > UDALBATZA ERAKETA

"Aldaketa egi bihurtu" zela esan zuen EAEko Pedro Iturbek alkatetza hartutakoan

EAEko bost hautagaien botoekin aukeratu zuten Pedro Iturbe Antzuolako alkate

Zinegotzi guztiek, PSEkoak izan ezik, legearen indarrez egin zuten zin euren kargua

A.B. / L.K. > ANTZUOLA

Zapatuko udalbatza eraketan ez zen ezusterik izan, eta Pedro Iturbe Eusko Abertzale Ekintzako (EAE-ANV) hautagaia da Antzuolako alkate berria.

Udal berria osatzeko osoko bilkurak hamabost bat minutu iraun zuen, eta normal joan zen dena. Herritar dezente joan ziren udaletxera osoko bilkura ikustera. Giro on eta lasaian egin zuten ekitaldia.

Zinegotzi guztiek, alderdi sozialistakoak izan ezik, euren borondatearen kontra eta legearen indarrez egin zuten zin euren kargua.

BOZKETA

Bozketari dagokionez, alkategai batek ere ez zuten gehiengo absolutua lortu; hortaz, boto gehien zituena zerrendako burua aukeratu dute alkate.

Horrenbestez, EAEko Pedro Iturbek bere alderdikoekin bost botoak jaso zituen; EAJko alkategai Basili Ormazabalek, hiru; eta alderdi sozialistako Paco Morcillok, bat. Ezker Batua-Zutik-Aralar koalizioiko bi ordezkariak zuri bozkatu zuten.

HERRIAK ESKATUTAKOIA

Iturbek, alkate kargua zin egin ostean, hitz batzuk egin zizkien batzar aretoan batutako herritarrei. Iturbek esan zuen egun hori garrantzitsua zela, "aspalditik Antzuolako herriak eskatzen zuen aldaketa egi bihurtu" zela. Bestetik, beste herri batzuetan, herritarren borondatea errespetatzea eskatu zuen.

Ondoren, Ezker Batua-Zutik-Aralar koalizioiko zerrendaburuak, Pilar Etxanizek, eta EAJkoak, Basili Ormazabalek, hartu zuten hitza.



ZINEGOTZIAK Mahaiaren bueltan, zinegotziak.

ARRITXU BARRUSO

EAJk eskerrak eman zizkien aurrekoei

Oposizioan geratu diren Ezker Batua-Zutik-Aralar eta EAJko zerrendaburuak hitz egin zuten ere osoko bilkuran. Hala, Pilar Etxaniz EB-Zutik-Aralar koalizioa adierazi zion Paco Morcillo PSEko zinegotziari "une gogor hauetan", azalpen gehiago gabe. EAJko Basili Ormazabalek, bestetik, esan zuen Pedro Iturbek joan den agintaldian egindako lana eskertu ez zuenez, berak ematen zizkiela eskerrak aurreko zinegotziei.

ELGETA > UDALBATZA ERAKETA

Aldeko bost botorekin izendatu zuten Aralarko Oxel Erostarbe Elgetako alkate

Lehenengo bozketan eta gehiengo osoarekin izendatu dute Aralarko Oxel Erostarbe Elgetako alkate

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Zapatuan, Elgetako udaletxean, nahikoa izan zen bozketa bakarra Aralarko Oxel Erostarbe alkate izendatzeko.

Oxel Erostarbek Aralar-Indepedenteak taldearen lau hautesien botoak jaso zituen, eta EAE-ANVren beste bat. Edurne Alberdiren taldeak, izan ere, bere esku zituen bi botoetatik bat eman zion Aralar alderdiaren alkategaiari. "Boto bat Oxel Erostarberi, Aralarrek bailaran hartu dituen konpromisoen aurrean gure borondatea erakutsiz", azaldu zuten Elgetako EAE-ANVkoek. "Beste botoa Aralarri ez ematea erabaki dugu, Aralarrek hartu ez dituen konpromiso ugari daudelako, eta ez dugulako etorkizunera begira beraiek duten jarrera argi ikusten".

ALKATE BERRIAREN LEHEN HITZAK

Alkate karguan Oxel Erostarbek egindako lehenengo adierazpenetan, Jabier Arantzeta alderdikidea izan zuen aurreneko gogoan, gaixorik ospitalean dago-eta. Jarraian, eskerrak eman zizkion 31 urtez Elgetako alkate izan den Patxi Basauriri, egindako lanagatik. Herritarrei, azkenik, pazientzia eskatu zien. "Aldaketa badator, baina gauzak ez dira egun batetik bestera aldatzen. Denbora behar dugu, eta herritarrei pazientzia pixka bat eskatzen diegu".

Aralarrek denekin gobernua osatzeko aukera aztertzen jarraituko duela esan du. "Posible dela uste dugu".



GAZTEENA Udalbatza hautetsi gazteena da Erostarbe (goian, erdian).

L.Z.

ESANAK

"Denekin gobernua osatzeko aukera dagoen aztertzen jarraituko dugu datozen egunotan"

Oxel Erostarbe > Aralar-Independ.

"Ezustea izan da EAEk Erostarberi boto bat ematea. Guk oposizioa joatea erabaki dugu"

Patxi Basauri > Elgetako Abertz.

"Aralarrek bailaran konpromisoak hartu ditu, baina hartu ez dituenak ugari dira. Hortik gure erabakia"

Edurne Alberdi > EAE-ANV



Asier Agirre, zapatuan.

A.B.

ARAMAIO

Agirre, gehiengo absolutuz alkate

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Eusko Abertzale Ekintzako Asier Agirre da Aramaioko alkate berria. Udalbatza berria eratzeko osoko bilkura oso motza izan zen zapatuan, bost minutu ingurukoa.

Asier Agirrek bost boto lortu zituen, eta EAJko Iñaki Nafarratek, hiru. EAJko Andres Osinagak ez zuen bere burua alkatetzarako aurkeztu, eta abstenitu egin zen. Udalbatza eratu bezain laster, EAJ eta EAJko zinegotziak batzar aretotik joan egin ziren.

LEINTZ GATZAGA

Eusebio Villar, gehiengo osoz alkate

M.A. / L.K. > LEINTZ GATZAGA

Udala osatzeko batzarra zapatuan egin zuten Leintz Gatzagan, 11:00etan hasita. Ez zen inongo ezusterik izan. Horrenbestez, lehenengo bozketan, gehiengo osoa lortu zuen Eusebio Villar Leintz Gatzagako Hautes Elkarteko zerrenda-buruak, eta bera da alkate berria. Gainerako zinegotziak hauek dira: Ainara Zubillaga, Iñaki Elkorobarrutia, Asier Elkorobarrutia, Iñaki San Pedro, Ibon Oñederra eta Ainhoa Barandiaran.



Eusebio Villar, eskuman. JON SASIAIN

Kirola



> **ESKUBALOIA**
Gipuzkoako bi selekzioek irabazi zuten Korpus Txapelketa > 16



> **ARETO FUTBOLA**
Txalupa sin remos, nagusi 24 orduko areto-futbol txapelketan > 18



> **MOTOKROSA**
Giro bikainean jokatu zuten II. Motokros Bergara saria > 19



> **ZIKLISMOA**
Mikel Mitxelenak irabazi zuen 71. San Antonio saria > 21

Arrasatek finala jokatu du 28 urteren ondoren

Azpeitiaren aurka jokatu du Herri Arteko pilota txapelketako finala

Egubakoitzean, Ataun menderatu zuen finalerdietako itzulerako partiduetan

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Zorioneko daude Arrasateko pilotariak; izan ere, Herri Arteko pilota txapelketako finala jokatu dute. Egubakoitzean jokatu ziren finalerdietako itzulerako partiduak, eta, Ataunen gertatu bezala, Mauri Zubillagaren mutilek, kadete eta senior mailetako partiduak irabazi zituzten.

Hala, Ataun menderatuta, Anoetan jokatu den finalerako txartela eskuratu dute. Finala, ekainaren 24an jokatu da, Atano III.a pilotalekuan.

UARKAPE, BETETA

Uarkape pilotalekua lepo bete zen egubakoitzean, kadete, gazte eta senior mailetako partiduak ikusteko: 500 lagun inguru bildu zen harmailetan.

Finalerdietako lehen partidua, kadete mailakoa izan zen. Beste behin, Ibai Bolinagak eta Iker Agirregabiriak ez zuten hutsik egin. Bikote sendoa dela erakutsiz, 22-4 menderatu zuten Ataungo bikotea. "Bikote indartsua da", azaldu zigun Zubillagak, "Bolinaga atzelaria den arren, aurrelari moduan tanto bikainak egin ditu. Zaleak aho zabali utzi ditu".

Gaueko lehen puntua eskutan zutela, gazte mailako norgehiagoka hasi zen. Iban Aranak eta

Ander Zubizarretak, apenas izan zuten aukerarik partidua irabazteko; bada, sei tanto egin zituzten zaleen txalo artean. "Iban eta Ander kadete mailako pilotariak dira, eta txapelketa honetan, gazte mailakoekin jokatzeko ari dira. Hala, irabazteko aukera gutxi dute; baina pozik gaude egin duten lanarekin", esan zigun entrenatzaileak.

Berdinketarekin, Ataunen geratu bezala, senior mailako partiduak erabaki zuen finalerdietako kanporaketa.


Hala, Arrasateko bikoteak oso urduri hasi zuen lehia. Unai Axperi eta Egoitz Uribarreni kosta egin zitzaion partiduan sartzea. Edozelan ere, lehia, irabazi egin zuten: 22-12.

HIRUGARREN FINALA

Anoetan jokatu duten finala, hirugarrena izango da Arrasaterendako. Orain arte jokatuak bi finalak irabazi egin dituzte

Lehenengo finala, 1976an jokatu zuten Seguraren aurka. Hondarribiako pilotalekuan jokatuak hiru norgehiagokak irabazi zituzten arrasatearrek: 3-0.

Oñatiko pilotarien aurka jokatu zuten bigarren finala, 1979an. Eibarreko Astelehena pilotalekuan jokatuak finala ere, Arrasatek irabazi zuen, 2-1.



IKER AGIRREGABIRIA Argazkian, kadete mailako bikoteko atzelaria, egubakoitzeko partiduan.

JOSETXO ARANTZABAL

Autobusa eta sarrerak, pilotazaleen eskura

Arrasatek eta Azpeitiak Atano III.a pilotalekuan jokatu dute Herri Arteko Pilota Txapelketako finala. Kadete, gazte eta senior mailetako partiduak ikustera joateko, AGT Arrasate Pilota Taldeak autobusa eta sarrerak jarriko ditu pilotazaleen eskura. Oraindik eguna zehaztu ez bada ere, autobus txartelak eta finalerako sarrerak Arrasateko Montte tabernan jarriko dituzte salgai.

AGT taldekoek oraindik ez dakite, zehatz, zenbat sarrera izango dituzten. "Badakigu sarrerak bi herrien artean banatuko dituztela", adierazi digute, "baina ez dakigu zehatz-zehatz zenbat izango diren".



PARTE-HARTZAILEAK Sari banaketaren ondoren, eskubaloi txapelketan parte hartu zuten jokalariek talde argazkia egin zuten plazan.

MIREIA BIKUÑA

KORPUS TXAPELKETA > INFANTIL MAILA

Gipuzkoako bi selekzioak nagusitu ziren Eskubaloiko Korpus Txapelketan

Bi finalak Bizkaiko selekzioen aurka jokatu zituzten; neskek garaipen erosoagoa lortu zuten (25-17); mutilak, aldiz, gogor lehiatu ziren bizkaitarrak menderatzeko (29-28)

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Giro bikainean jokatu zen zapatuan, Oñatiko Zubikoa kiroldegian, Eskubaloiko Korpus Txapelketa. Infantil mailako Gipuz-

koako, Bizkaiko, Nafarroako eta Euskadiko nesken eta mutilen selekzioek parte hartu zuten; guztira, 150 neska-mutiko lehiatu ziren Oñatiko txapelketan.

GOIZ ETA ARRATSALDE

Korpuseko eskubaloi txapelketa goizean eta arratsaldean jokatu zen; goizean, finalurrekoak, eta arratsaldean, finalak.

Txapelketa 09:30ean hasi zen. Euskadiko eta Gipuzkoako neskek lehiatu ziren lehenengo, eta gipuzkoarrak nagusitu ziren (34-14). Haien ondoren, talde bereko mutilak jokatu zuten, eta lehia hartan ere, Gipuzkoa gailendu zen (33-14).

Beste bi finalurrekoetan, Bizkaia eta Nafarroako selekzioak lehiatu ziren; bietan, bizkaitarrak nagusitu ziren: nesketan, 24-17, eta mutiletan, 23-19.

FINALAK

Pago Uso elkartearen bazkaldu ondoren, finalak jokatu ziren, eta bietan, Gipuzkoako selekzioak gailendu ziren.

Infantil mailako mutilen finala oso parekatua eta ikusgarria

izan zen. Erasoan defentsan baino hobeto jokatu zuten bi taldeek; guztira, 57 gol sartu zituzten. Gipuzkoak irabazi zuen, gol bakarreko aldearekin (29-28).

Nesken finala irabazteko arazo gutxiago izan zuten gipuzkoarrek (25-17).

Final nagusien aurretik jokatutako bi kontsolazio finaletan, Euskadiko selekzioak nagusitu ziren nafarren aurka; 36-30 nesketan, eta 24-20, mutiletan.

Kepa Zelaia eta Jone Ugarte oñatiarrak, Gipuzkoako taldean

Eskubaloiko Korpus Txapelketan parte hartu zuten 150 neska mutikoen artean, bi oñatiarrak ziren: Kepa Zelaia eta Jone Ugarte. Aloña Mendiko infantil mailako taldeetako bi jokalariek Gipuzkoako selekzioarekin lehiatu ziren. Oñatiko bi jokalariek harmailetan zeuden ikusleen animuak jaso zituzten etengabe.

Goizeko lehen norgehiagoketan, Euskadiko selekzioen aurka lehiatu ziren. Hala, partidurak irabazita, arratsaldean, finalean, Bizkaiko selekzioen aurka jokatu zuten. Biek talde txapelkunaren sariak jaso zituzten.

Kepa Zelaia lateral postuan jokatu zuen, eta Jone Ugartek, berriz, hegalean.



Kepa Zelaia eta Jone Ugarte.

JOSETXO ARANTZABAL

Iñaki Cantero > Gipuzkoako nesken hautatzailea

"Eskubaloiko harrobiko jokalariekin lan handia egin beharra dago"

M.B. > OÑATI

Iñaki Cantero oñatiarra Gipuzkoako nesken selekzioko hautatzailea da azken zortzi urtetan. Harekin berba egin genuen.

Zer moduz joan da txapelketa?

Nahiko ondo. Finala irabazi dugu, eta pozik gaude. Hondarribian, Aste Santuko domekan jokatu genuen txapelketa ere guk irabazi genuen.

Hautatzaile zaren aldetik, eskubaloiak harrobia duela uste duzu?



M.B.

Nik baietz esango nuke. Baina, nesketan, arazo bat dago: 18 urte beteta, jokalariek askok eskubaloia utzi egiten dute. Hala, adin horretan jokalariek on asko galdu egiten da. Edozelan ere, jokalariek gazteekin lan handia egin behar da.

Nolakoa da zuk egiten duzun hautatzaile lana?

Gipuzkoan, 20 talde daude; guztira, 350 neska. Hala, Aloña Mendiko infantilekin partidurik ez dudana egunetan, beste taldeen lehiak ikustera joaten naiz, jokalariek ikustera.



SARITUAK Argazkian, irabazleak, sariak jaso ondoren.

JOSETXO ARANTZABAL

ARRANTZA > OÑATIKO TXAPELKETA

Josu Lizarralde eta Julen Maneirok irabazi zuten Oñatiko arrantza txapelketa

Bi mailatan, guztira, 35 arrantzalek parte hartu zuten atzoko txapelketan

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Alzu arrantza dendak eta Pago Uso elkarteak antolatutako Oñatiko Arrantza Txapelketa atzo jokatu zen Arantzazu errekan. Josu Lizarralde, Jose Antonio Novoa eta Antonio Pereira izan

ziren lehen hiru sailkatuak, 16 urtetik gorakoan artean. Gazte mailan, lehen hiru sailkatuek, Julen Maneirok, Iker Novoak eta Jon Fernandezek, bosna amuarrain harrapatu zituzten; bada, denbora gutxien Julen Maneirok erabili zuenez, hark irabazi zuen txapelketa. Edozelan ere, amuarrainik handiena laugarren tokian sailkatu zen Gorka Guridik harrapatu zuen: 650 gramoko amuarraina.

Guztira, 35 arrantzale lehiatu ziren. Bukaeran, luntxa egon zen guztiendako.

FUTBOLA

Kilometroen alde egingo dute Realak eta Bergarak

Zapatuan, hilaren 23an, jokatu dute bi talde betanoek Agorrosin zelaian

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Kilometroen alde, Bergarako eta Realeko talde betanoek lagun arteko futbol partidua jokatu dute datorren zapatuan, Agorrosingo futbol zelaian, arratsaldeko 06:30ean.

Partidua ikusteko sarrerak Bergarako Aranzadi Ikastolan, Deportivo eta Pol-Pol tabernetan eta Agorrosin Kirolguneko tabernan egongo dira salgai. Sarreraren salneurria helduendako hiru euro eta umeendako euro bat izango da.

PARTE-HARTZE HANDIA

Lagunarteko partidua jokatzeko, Bergarako jokalariei dei egin zieten. Hala, Bergaran futbolearen aritu diren erantzuna bikaina izan da; guztira, 23 jokalarik eman dute izena Kilometroen aldeko lagunarteko partidua jokatzeko. Jokalari horien artean, Agustin Arantzabal Bergarako eta Realeko jokalariei ohia izango da. Maila handiko taldea, beraz, Bergarak Agorrosin aurkeztuko duena.

Bergarako entrenatzailea Juanjo Arrieta bergarra izango da. Bere ardurapean, Realeko betanoei egin beharko diete aurre mahoneroek.

REALEKO AULKIAN, LARRAÑAGA

Realeko aulkia zuzentzeko ardurak Jesus Mari Larrañaga bergarrak izango du. Donostiarrek izarrez betetako taldea ekarriko dute Agorrosinera; besteak beste, Alkiza, Uria, Alonso, Shanti Bakero eta Guruzeta izango dira kilometroen aldeko partiduan.

Epaila lanetan, Valentin Egidazu bergarra ibiliko da. Lagunarteko partiduetan ez da inolako arazorik izaten; hala, Egidazuren lana bigarren mailan geratuko da. Garrantzitsuena Kilometroen aldeko jaia izango da-eta.

"Kultura nonahi loratu dadila."

Antxon, Elgeta.

Kutxaren gizarte eta kultur ekintza Debagoienean.

2007an egindako ekitaldiak

Antzuola	Antzerkia: Antzerkia:	"La domadora de monstruos" "Emetik, bertso kabareta"
Arrasate - Aita Menni	Erakusketa:	"Miradas en blanco y negro y color. Historia de la arquitectura"
Eskoriatza	Antzerkia:	"Zergatik bizi da txano gorritxoren amona basoan?"
Oñati	Ikusentzunezko proiektzioa: Antzerkia:	"Nueva Zelanda" "La domadora de monstruos"

2007rako hurrengo ekitaldiak

Aretxabaleta	Zinema:	"Nomadak tx"
Arrasate	Antzerkia: Erakusketa:	"El guía del Hermitage" 2003ko Donostia Hiriko Kutxa Saria, Federico Luppi antzesle nagusi delarik. "Fotógrafos de la naturaleza 2007"
Elgeta	Ikusentzunezko proiektzioa: Antzerkia: Antzerkia: Antzerkia:	"Ingravidez" "La domadora de monstruos" "La gota gorda" "Emetik, bertso kabareta"
Eskoriatza	Antzerkia: Antzerkia:	"La gota gorda" "El hijo que vino sin pan"
Oñati	Kontzertua:	"Tirri tarra + Orfeón Donostiarra + Sotto voce orkestra"



zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 kutxa

TXAPELKETA > 24 ORDU ARRASATEN

Txalupa Sin Remos taldeak irabazi du txapelketa, Basatiri finalean irabazita

Lehenengo aldia izan arren, areto-futbol txapelketak arrakasta izugarri izan du

Amaieran, Txalupako Iban Espinosak jokalaria onenaren saria jaso zuen

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE
Atzo, 08:45ean jokaturako finalean, Txalupa Sin Remos taldeak 4-1 irabazi zion Basatiri Arrasateko 24 orduko areto-futbol txapelketako finala. Egun osoko txapelketa antolatzen den lehenengo aldia izan zen, eta antolatzailerak oso gustura zeuden erantzunarekin.



ORDU ERDI 30 minutuko partiduak jokatu zituzten 24 orduko txapelketan.

JOSETXO ARANTZABAL

HAMASEI TALDE ARITU ZIREN

Zapato goizeko 10etan hasi zen txapelketa. 16 talde ibili ziren. "Beste bat kanpoan geratu da, berandu ibili da-eta izena ematerakoan",

adierazi zuen Ibai Gonzalez antolatzailerak. Lau taldetan banatuta, ligaxka erara jokatu zuten lehenengo fasea; denek denek aurka.

Gero, sailkapenaren arabera, lehenengoek laugarrenen aurka eta bigarrenek hirugarrenen aurka egin zuten.

Finalerdiak Los Camillasek eta Txalupak, alde batetik, eta Basatik eta Cicatrusek, bestetik, jokatu zuten. Finalean, Txalu-

pak 4-1 irabazi zion Basatiri. Finalean, Iban Espinosak hiru gol egin zituen, eta jokalaria onenaren saria irabazi zuen.



ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!

Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.



BERMEA
2 URTE

1.850
X
598
X
600 mm

A

HOZKAILUA COMBI 5FAC-495

420 €70.140 pta



BERMEA
2 URTE

1.700
X
600
X
600 mm

A

HOZKAILUA 4FE-01E41

320 €53.440 pta



BERMEA
2 URTE

ONTZI-GARBIGAILUA LJA-0140

275 €45.925 pta



BERMEA
2 URTE

1.000 b/min
5 kgr.

GARBIGAILUA LA-110

305 €50.935 pta



BERMEA
2 URTE

**LABEA eta BITROZERAMIKA
STA1410**

**LABEA eta BITROZERAMIKA
INSTALATUTA**

355 €59.067 pta



BERMEA
2 URTE

**AIRE EGOKITU PORTATILA
FAP-2 CR HOTZA
2000 KCL/orduko**

325 €54.275 pta



BERMEA
2 URTE

**AIRE EGOKITU PORTATILA
ADR 66 HOTZA
2000 KCL/orduko**

290 €48.430 pta



**"EVA" MAHAIA
110x70 zm**

365 €60.731 pta



BEROTU SUKALDEA C-85 NC 1925 €321.475 pta

Sukalde itxia, berotzen ez duena, igeltserotza lanik barik. Kutxa eta gaineko sukalde bikoitzarekin.

Altuera: 85 zm.
Luzera: 85 zm.
Sakonera: 60 zm.

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen batz besteko energia kontsumoaren araberrako energia aurrezteak.

A+ >>>> 70%
A >>> 45%
B >> 25%

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.

Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

MOTOKROSA > II. BERGARAKO LASTERKETA

Oraingoan, euriak ez zuen motor festa zapuztu

Bost taldetan banatuta, 80 pilotu inguru ibili ziren, Candy ondoko zelaian, Euskadiko Motokros Txapelketarako puntuagarria zen proban

Goizean, entrenamendu saioak jokatu zituzten, eta arratsaldean, lehiaketa; MX1 nagusien kategorian, Heber Garmendiak irabazi zuen

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Eguraldi txarragatik bertan behera geratu zen motokros txapelketa jokatu zuten zapatuan Candy ondoko zelaian. Oraingoan, eguraldia lagun izan zuten; hala, bai parte-hartzaileak eta bai ikusleak gustura geratu ziren. Motorzaleek Euskadiko Motokros Txapelketarako puntuagarria izango den lasterketa ikusteko aukera izan zuten. Parte-hartzaileak 1,3 kilometrotako zirkuituan ibili ziren, nor baino nor gehiago.

GOIZEAN, ENTRENAMENDU SAIOA
11:45ean hasi ziren motor hotsak Bergarako Candy. Ordurako, parte-hartzaileak, horrelako lasterketa batean beharrezkoak diren jantziak ipinita eta kaskoa buruan zutela, irteera puntuan jarri ziren. Bost kategoriatan banatuta lehiatu ziren parte-hartzaileak: alebinak, kadeteak, gazteak eta, helduetan, MX1 eta MX2 -zilindrada ezberdina eta bi edo lau zalditako motorrekin.

Gero, arratsaldean, lasterketak jokatu zituzten; kategoria bakoitzean, zirkuituari hainbat itzuli egin behar izan zioten. Gaztetxoek kategorian, 1,3 kilometrotako zirkuituan 15 minutu eta bi itzuli egin behar izan zuten. Helduek, berriz, 20 minutu eta bi itzuli. Zirkuituaren irteera puntua Candy ondoko zelaian goiko partean jarri zuten. Motorrek, ilaran jarri eta, irteera egin bezain laster, ezkerretara egin behar zuten; bihurtu hori nahiko arriskutsua izan zen. Hori dela-eta, hainbat erorketa ikusgarri ikusi ziren irteera puntuan; hala ere, inork ez zuen minik hartu.

Ereriko arriskutsuena Beñat Otaegik izan zuen. MX2 mailako lasterketan, jauzi bat egi-terakoan, jauzi egin zen eta, gainera, beste motor bat erori zitzaion. Hala, badaezpada ere, immobilizatu egin zuten eta DYAKo ambulantiak ospitalera eramatu zuten pilotu gaztea.

ZALAKAINEK UTZI EGIN ZUEN

Ibarreko pilotuei dagokienez, MX1 mailan jokatu zutenek zorte txarra izan zuten. Imanol Zalakin, esaterako, jauzi egin zen, eta ezin izan zuen lasterketa amaitu; bertan behera utzi zuen. Maila berean aritu zen beste bergararrak, Asier Blazquezek, arazoak izan zituen. "Lasterketan ondo ikusi dut nire burua; baina, zazpigarren nengoela, seigarrena harrapatzekotan, jauzi egin naiz eta, gero, ezin izan dut motorra martxan jarri. Azkenean, lortu dut lasterketa amaitzea, baina, helmugarako bi itzuli falta zirela, doblatu egin nautte. Beraz, lasterketatik kanpo geratu naiz", adierazi zuen Blazquezek lasterketa amaieran.

MX2 kategorian ibili zirenek nahiko berdintsu amaitu zuten lasterketa: Joseba Lopez bosgarren tokian sailkatu zen, Xabier Abasolo seigarrenean, eta Josu Mentxaka zazpigarrenean.

Parte-hartzaile gehienak Euskal Herrikoak izan arren, gaztetxoek mailan, Zaragoza, Errioxa, eta Kataluniatik etorritako hainbat lagun zeuden. Hori dela eta, antolatzaile taldekoak gustura geratu ziren txapelketak izandako oihartzunarekin. Orain, Debagoieneko motorzaleen helburua inguruan zirkuitu iraunkorra lortzea izango da.



SALTOAK Candy ondoko zirkuituan, salto ikusgarriak ikusi ziren.

JOSETXO ARANTZABAL

sailkapenak

MX1 MAILA

1. Heber Garmendia	44
2. Jon Mugika	40
3. Ibai Marketegi	38

MX2 MAILA

1. Iker Lujanbio	50
2. Roberto Blanco	42
3. Haimar Marcilla	42

GAZTE MAILA

1. Aritz Marcilla	47
2. Ruben Jimenez	40
3. Sergio Varela	40

KADETE MAILA

1. Adrian Villaverde	50
2. Hodei Blanco	44
3. Asier Barandiaran	40

ALEBIN MAILA

1. Iker Larrañaga	50
2. Alejandro Serrano	44
3. Jon Idiakez	38

Angel Bideluze > Antolatzailea

"Gure helburua inguruan zirkuitu iraunkorra jartzea izango da"

A.E. > BERGARA

Bergarako motokros lasterketako antolatzaileak pozik zeuden txapelketak izandako erantzunarekin. Dena amaitu eta batzen ari zirenean, Angel Bideluze antolatzaileetako batekin izan ginenean.

Bigarrenean bada ere, azkenean jokatu da lasterketa. Zer moduz joan da eguna?

Nahiko ondo; giro onean jokatu dugu lasterketa. Gainera, ez da istripu larririk egon; bat izan da, baina ez dugu uste ezer larria denik.

Gainerakoan, egun polita izan da, eta lasterketa ikusteko ere giroa halakoa izan da. Ez du larregi berotu, eta horrek ere lagundu egin du. Proba hasieran, hautsa kentzeko, kamioia ibili da ura botatzen.

Lehenengo, goizean, entrenamendu saioak egon dira, eta arratsaldean, lasterketa.

Hala da; goizean, bost kategorietako pilotuak ibili dira, eta arratsal-

dean, karrera jokatu da. Parte-hartzaileak, gehienak, Euskal Herrikoak izan dira; Gasteizkoa izan da lehenengo mailako irabazlea. Motor klasikoetan lehiatzeko, Kataluniatik eta Castelletok ere etorri dira.

Bigarren urtez jarraian antolatu duzue lasterketa. Iaz baino hobeto moldatu zarete?

Bai, antolatzen bai, behintzat. Zirkuitua ondo markatuta egon da, eta salto politak jarri ditugu.

Orain urte asko antolatzen ziren motokros lasterketak, baina, zirkuitu honetan, bi urtez jarraian ari gara. Orain, gure helburua zirkuitu iraunkorra jartzea da; guk, behintzat, hori eskatuko dugu.

Zein izan da zirkuituko lekurik ikusgarriena?

Helmuga parean dagoen saltoa da politena, salto horrek igoera eta altuera batzen dituelako. Pilotu gehienek puntatik puntara egiten dute salto, eta ikusgarria izaten da.

FUTBOLA > LEHENENGO MAILA

Realak bigarren mailan jokatu du, 40 urte lehenengo mailan egin ondoren

Reala ez zen gai izan Valentziaren aurka irabazteko; edozelan ere, Betisek eta Athleticek haien partiduak irabazi zituzten, eta Reala bigarren mailara bidali zuten, Celtarekin batera

A.E./M.B. > BERGARA

1967ko apirilaren 23an igo zen azkeneko aldiz Reala lehenengo mailara. Realzale askok oroimean duten data da. Gaurtik aurrera, beste bat ere izango dute buruan: 2007ko ekainaren 17a, Reala berriro bigarren mailara itzuli zenekoa.

Bada, jaitsiera honek ez ditu zaleak ezustean harrapatu, izan ere, Reala, hirugarren jardunalditik, jaitsiera postuetan egon da. "Denboraldia gaizki hasita, alda pa gogorragoa egiten da", azaldu digu Gontxa taldeko Izei Barberok. "Urte oso txarra izan da. Anoetara hurbildu garen zale guztiok asko sufritu dugu".

Iritzi berekoa da Oñatiko Nerea Mendiola: "Partidu gehienak izan dira txarrak, bai jokalarien jarrera aldetik, eta baita taldeak egindako jokorengatik".

Adituen dioten moduan, azken saiklapek talde bakoitza bere tokian jartzen du.



ZALEAK Bergarako Pol-Pol tabernan partidua ikusten.

JOSETXO ARANTZABAL

HAMABI PUNTU ATZETIK

Martxoaren 3an jokatuak 25. jardunaldian, Zaragozaren aurka galdu ondoren, Lotinaren taldea lehenengo mailan gelditzeko postuetatik 12 puntura zegoen. Hala, zale gehienek taldea bigarren mailan ikusten zuten.

Bada, bolada ona hartu zuen taldeak, eta partiduak irabazten hasi zen. "Zaleengan ilusioa piztu zuen taldeak", esan digu Nerea Mendiola. Baina, partidu garrantzitsuetan, Españolen, Getaferen, Osasunaren eta, batez ere, Racing taldearen aurka, huts egin

zuten: "Kolpe gogorra izan zen Osasunaren aurka galtzea; baina gogorragoa izan zen Racingen aurkako partidua. Saviok penaltia huts egin zuenean, inozo aurpegia geratu zitzaigun", dio Mendiola.

Jardunaldi hartan, Realarekin lehiatu zeuden gainontzeko tal-

deek haien partiduak galdu zituzten. Hala, Realak jaitsiera postuetatik ihes egiteko aukera bikaina galdu zuen.

ZALEAK, BETI TALDEAREKIN

Urte txarra izan arren, Realaren zaleek ez dute hutsik egin. Debagoietik, norgehiagokak ikustera hainbat autobus abiatu dira: Arrasatetik, hirur, eta Bergara eta Oñatitik, bina autobus.

Urte hasieran, urtarrilean, bazkide txartelak berritzeko garaian, zale askok baja hartu zuten. Edozelan ere, taldeak bolada ona hartu zuenean, eta klubaren sarrerak oparitzen hasi zenean, harmailak lepo bete ziren berriz ere.

Halaber, bigarren mailan, Anoetara joan den zale kopuruak ere behera egingo du. "Nik uste dut baietz", diosku Nerea Mendiola, "baina zale leialak direnek ez dute hutsik egingo. Ni, datorren denboraldian, partidu batzuk ikustera joango naiz; baina dagoeneko ez naiz bazkide".

TALDEAREN GABEZIAK

Zelai erdian izan du Realak gabeziarik handiena. Xabi Alonso Liverpool taldera joan zenetik, ez du inork zelai erdiko agintea hartu. "Denbora luzea da taldeak ez duela erreferenterik zelai erdian. Defentsan, nahiko txukun aritu dira. Mikel Gonzalezek, jokatu duenean, lan ona egin du. Erasotan, aldiz, arazo asko izan ditu golak egiteko", azpimarratu digu Izei Barberok.



JOSETXO ARANTZABAL

ESANAK

"Azken urteetako joera errepikatu da; bigarren mailan, sufritu egingo dute"

Jokin Etxeberria > Kirol kazetaria

"Inflexio puntua iritsi da; Real politikak gabe dabil, filosofia galdu dute"

Anartz Agirre > Kirol kazetaria

"Realari jokalaririk erabakigarria falta zaio, gola egingo duen jokalaria, alegia"

Mikel Etxabe > Eibarreko jokalaria

"Athleticek 1. mailan jarraituko du, baina ez da normala azken urteetako egoera"

Igor Arenaza > Jokalari ohia



JOSETXO ARANTZABAL

Realeko kamiseta gutxi atzoko egunean

Realzaleak burumakur eta inongo kolore txuri-urdin gabe zeuden. Ibarreko taberna asko dira Realeko partiduak ematen dituztenak; Basati, Monte, Aloña Mendi, Depor... irudikoak, Bergarako Pol-Pol taberna da. Bertan, betiko jarraitzaile taldea bildu zen Realaren partidua ikusteko. Garitanok lehenengo minutuan sartutako golak itxaropena piztu zuen, baina pozak gutxi iraun zuen. Azkenean, hirunako berdinketa lortu zuten, eta datorren urtean bigarren mailan ibiliko dira.

Athletic, beste urte betez 1. mailan

Athleticeko jarraitzaileek Realzaleek baino zorte hobea izan dute. Atzo, San Mamesen, Levanteren aurka 2-0 irabazi zuten lehoiek. Ibarrean, makina bat jarraitzaile ditu talde txuri-gorriak. Irudikoak, Bergarako Toki-Ona bodegoian elkartu ziren, ligako azkeneko partidua ikusteko. Lehiako 60. minutuan lortu zuten bilbotarrek lehenengo gola; hain zuzen, Levante taldeko Serranok sartu zuen, bere atean. Gol hura ospatzen ageri dira Julen Anakabe eta Jon Marton oñatiarrak.

TXIRRINDULARITZA > SAN ANTONIO SARIA

Ecotermiko Mitxelena izan zen azkarrena helmugan

113 txirrindularik eman zuten izena 71. San Antonio Sarian; horietatik, Bergarako helmugara 76 txirrindulari besterik ez ziren heldu

oñatiarra, 16. tokian. Sailkapenean atzerago, Sumofic taldeko Iker Mugartza eta Unai Martinez sailkatu ziren.

Zapatuko lasterketak 71 kilometro izan zituen; txirrindularien batezbesteko abiadura orduko 39,04 kilometrokoa izan zen. Taldeka, G-Corruados nagusitu zen.



HELMUGA Bost txirrindularik osatutako taldetxoa heldu zen San Antonioko helmugara.

JOSETXO ARANTZABAL

A.E. > BERGARA

Bost laguneko taldetxoa heldu zen San Antonioko helmugara zapa-tuan; guztietan azkarrena Ecotermi taldeko Mikel Mitxelena izan zen. 71. San Antonio Sariko irabazleak 1:49:07ko denbora gura izan zuen lasterketa amaitzeko.

TROPELA, 27 SEGUNDORA

Bost laguneko taldetxoaren ostean, Andoaingo Iñaki Bengoetxea sartu zen, 14 segundora. Trepela atzetik sartu zen, Bengoetxearengandik 13 segundora.

Bergarako lasterketa jokatzeko, 113 txirrindularik eman zuten izena; horietatik, 76 heldu ziren helmugara. Ibarreko txirrindularien artean, Sumofic taldeko Aitor Laskurain 15. tokian sailkatu zen, eta Ulma taldeko Ander Altube

Gipuzkoako Erlojupeko Txapelketan, Gurutz Larrea eta Unai Aranzabal, podiumean

Gurutz Larrea antzuolarrak eta Unai Aranzabal bergararrak hirugarren eta laugarren postuak lortu zituzten, hurrenez hurren, Gipuzkoako Erlojupeko Proban; hala, Aizarnazabalen egindako denborarekin, 23 urtez azpikoen podiumera igo ziren bi txirrindulariak.

Hilaren 13an Aizarnazabalen jokaturako 22 kilometrotako Gervais Oroimenezko Gipuzkoako Erlojupeko Txapelketan, Asier Maeztu hirugarren urtez segidan garaile izan zen. Bidelan-Kirolgi taldeko donostiarrak erlojupeko proban duen nagusitasuna erakutsi zuen; izan ere, aurtengoa-rekin, laugarren titulua lortu du Maeztuk.

Aizarnazabalgo helmugan, irabazlearengandik 28 segundora Hasier Olea (Azpiru Ugarte) sartu zen, eta hirugarren postuan, Gurutz Larrea antzuolarra, Asier Maeztugandik 47 segundora. Jarraian, Unai Aranzabal sartu zen, laugarren postuan; Aranzabal Antzuolako taldekideagandik 15 segundora sartu zen.

Hala, 23 urtez azpikoen podiumera igo ziren Bidelan Kirolgi taldeko Larrea eta Aranzabal, Azpiru taldeko Hasier Oleari lagun egiten. Elite mailan, Asier Maeztuk (Bidelan Kirolgi), Jose Antonio Larreak (Azpiru) eta Iñaki Anzarrek (Buesa) osatu zuren podiuma.



Larrea, Olea eta Aranzabal, podiumean.

GOIENKARIA

ESKORIATZA > KIROL ELKARTEKOEN URTE AMAIERAKO JAIA

Giro onean agurtu zuten denboraldia

Egun osoko jaia antolatu zuten Eskoriatza elkarteok denboraldia agurtzeko

Kiroldegian, 3x3 eta areto futbol txapelketak jokatu zituzten eta plazan jan edana egon zen

A.E. > ESKORIATZA

Giro onean eman zuten amaitutzat Eskoriatza Kirol Elkarteok aurtengo denboraldia. Egun osoko jaia antolatu zuten eskoriatzarrek; kirola eta jaia uzartuz, egun aparta pasa zuten Eskoriatzako plazan bildutakoek.

Kirola eginez hasi zuten jaia; goizeko 10etan, 3x3 saskibalo partiduak eta areto-futbol partiduak jokatu zituzten Luis Ezei-

za eta Intxaurtxueta kiroldegiko kantxan. Ondoren, txikientzat, jokoak egon ziren Herriko plazan, trikitilarien musikaz alaituta.

TORTILLA PATATA LEHIAKETA

Eguerdian, tortilla patata lehiaketa egin zuten, eta 16 tortilla egin zituzten. Udalbatza berriko zinegotziak aritu ziren epaimahai lanetan, eta ondokoa izan zen erabakia: lehenengo saria Jaio-

nek lortu zuen, bigarrena Errartek eta hirugarrena Jonathanek. Arratsalde partean, jan-edana izan zen Herriko plazan.

25 KILO OKELA

Plazan antolatu zuten parrilladak izugarrizko arrakasta izan zuen: guztira, 25 kilo okela eta 15 kilo txorizo saldu zituzten. Janari lagun egiteko, hainbat garagardo mota jarri zituzten. Amaierarako, ezer gabe geratu zirela adierazi digu Eskoriatza taldeko presidentek, Manuel Muñozek: "Arrakasta izugarria izan du parrilladak. Gure helburua herrian horrelako jai bat ezartzea izan da, eta etorkizunean jaia egiten jarraituko dutela espero dugu", esan zuen.



PARRILLADA 25 kilo okela saldu zituzten zapatu arratsaldean.

JOSETXO ARANTZABAL



Karaoke Ikuskizuna Urritik aurrera Debagoianean!

Debagoianean bizi bazara, 1995 eta 1999. urteen artean jaio bazinen eta euskal kantuak abestu eta dantzatzeko prest bazaude, eman izena zure eskolan, Goienako egoitzetan edo ondorengo blogean: www.goiena.net/blogak/kantari

- Taldea gehienez lau lagunek osatuko dute.
- Izenematea eskoletan: ekainaren 20a baino lehen.
- Izenematea Goienako egoitzetan edo blogean: ekainaren 27a baino lehen.
- Ikuskizunak Debagoieneko aretoetan izango dira.
- Parte-hartzaileak uda aurretik aukeratuko dira, eta uda ostean hasiko dira entseguak.
- Emanaldi guztiak GOITBn emango dira, Debagoieneko Telebistan.

BABESLEA




gaztetxo
elkartea
club juvenil

ANTOLATZAILEA

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak



> **KONTZERTUAK**
Ikasturte amaierako kontzertuak oraingo astean > 24



> **ERAKUSKETAK**
Bi artelan erakusketa inauguratu dituzte Bergaran > 24



> **SAN PEDROAK**
Eskoriatzan, egitarau zabala prestatu dute jaietarako > 26



> **DANTZAK**
Euskal Herriko 31. Dantza Txapelketa jokatu zuten atzo Seguran > 27



BETETA Mariaren Lagundiko eliza bete egin zen egubakoitzean 'Dido and Aeneas' opera entzuteko; musika eskolako orkestraren ganbara taldearen eta kantuko ikasleen emanaldia izan zen.

JOSETXO ARANZABAL

OPERA

Dido eta Aeneasen maitasun istorioaz kantu kontari

Musika eskolako orkestraren ganbara taldea eta kantu ikasleen lana izan da

Andoni Sierrak zuzendu du opera, eta baita klabea jo ere; hunkitzea lortu dute

EDURNE BURGAÑA > BERGARA

Mariaren Lagundiko eliza bete-bete egin zen egubakoitzean. Opera kontzertu bat ematen zuten Bergarako musika eskolakoek: H. Purcellen *Dido and Aeneas*. Musika estilo hori lantzen zuten lehenengo aldia da.

Orain arte, kantu ikasleek musikalak-eta egin izan dituzte, baina musika barrokoa, antzinakoa, landu gabe zeukaten. Instrumentistekin ere gauza bera gertatzen zen. Gogor egin dute lan azken hilotan, eta emaitzan igarri da. Ohitu gabe zeuden estilo honetara, eta zaila egin zaie ikas-

tea, baina lortu dute. Oso ondo landuta zegoen guztia, eta maila onona eman zuten.

ISTORIO TRAGIKOA

Hunkigarria izan zen emanaldia. Momentu oso suabe batzuk lortu zituzten, eta entzuleak adi-adi egon ziren emanaldi osoan zehar. Gora-behera handiko musika da, kontraste handikoa: oraintxe suabe, eta oraintxe gogor. Kontraste hori da giro berezia sortzen laguntzen duena.

Lantzen den gaia, gainera, oso tragikoa da. Aeneas Troyako printzea da eta Erromara joateko agin-

dua dauka. Bidean doala, Kartagoko uhartean atsedean hartzen geratzen da, eta bertan, Dido erregina ezagutzen du. Maitemindu egiten dira biak, baina sorginek eta aztiak amodio hori apurtzea erabakitzen dute.

Horretarako trikimailuak erabiltzen dituzte, eta Aeneas berriro ere Erromara bidaltzea lortzen dute, bere zereginetara. Dido utzi behar izaten du horretarako, eta hau maitasunez hiltzen da. Amaiera tragikoa dauka. Gainera, bestetan ez bezala, musika oso suabe amaitzen da, eta jendea hunkituta uzten du.

Orkestraren ganbara taldean, 15-16 urteko neska-mutikoak daude, eta bi irakasle eduki zituzten laguntzen. Andoni Sierra aritu zen zuzendari lanetan, baina ez zen hori izan egin zuen bakarra. Klabea ere jo zuen.

Instrumentu berezia da, polita, eta doinua ere halakoa dauka. Askotan antzeztu eta interpretatu da *Dido and Aeneas*, eta askotan, piano elektronikoa batekin, soinua imitatzen. Baina klabeak ukitu berezia eman zion emanaldiari. Bergarako eliza alde batera utzi eta epokara eroan zituen bildutako ikus-entzuleak.

KONTZERTUAK > IKASTURTE AMAIERA MUSIKA ESKOLETAN

Bergarako fagoteko ikasleek gaur arratsaldean egingo dute emanaldia

Ikasturte amaiera gainean da, ikasitakoa plazaratzeko garaia iritsi da: Bergaran gaur hasiko dituzte emanaldiak, eta Arrasaten, bihar, gitarra eta biolako ikasleek joko dute

EDURNE BURGAÑA > BERGARA

Ikasturte amaiera bertan da, eta Bergara eta Arrasateko musika eskolakoek kontzertuak egingo dituzte aitzaki horrekin. Gaur hasiko dira Bergarakoak, eta Arrasaten, dagoeneko egin dituzte banaka batzuk, baina datozen egunotan ere jarraituko dute kontzertuak egiten.

DIPLOMA BANAKETA

Bergarako Musika Eskolako fagoteko ikasleen audizioa izango da gaur, 17:00etan. Biharkoan, ostera, trikitixa, panderoa, klarinetea eta txistuko ikasleen emanaldia entzuteko aukera egongo da 19:00etan.



ARRASATE MUSIKAL Egubakoitzean Amaia antzokian egin zuten kontzertua.

JOSETXO ARANTZABAL

Eguenean, 2. mailako eta 3. mailako diplomaren banaketa eta kontzertua egingo dituzte Zabalotegi aretoan, 19:00etan. 2. mailakoa 19 ikaslek jasoko dute, euren musika-tresnekin eta hain-

bat ikasgai burututa. 3. mailako titulua jasoko dutenak lau izango dira, eta lehenengo aldiz ematen da maila horretako diploma. Piano, klarinete eta biolako espezialitateetan jasoko dituzte.

Ekainaren 30ean, Bergarako musika eskolako talde instrumentalak eta kantu ikasleek Bergarako Orfeoiaekin batera egingo dute emanaldia, Mariaren Lagundiko elizan, 20:00etan.

SAN JUAN EGUNEAN, KONTZERTUA

Arrasate Musikalekoak pasa den astean hasi ziren ikasturtean ikasitakoa plazaratzen, eta aste honetan jarraituko du egitarauak. Bihar gitarra eta biola ikasleek kontzertua eskainiko dute Kulturaten, 18:30ean.

Egubakoitzean, hilak 22, kantuko ikasleen txanda izango da, emanaldia egingo dute eta musika eskolan, 18:30ean. Hurrengo egunean, zapatuan, errementari dantza egingo dute herriko dantzariak, eta Arrasate Musikaleko bandak parte hartuko du.

San Juan eguneko kontzertua eskainiko du domekan Arrasate Musikaleko bandak, 13:00etan, Monterron parkean. Bederatzi abesti joko dituzte: D. Shotakovitchen *Jazz Suite*, B. Appermonten *Ivanhoe*, T. Mujokaren *Aitziber eta Jon* balsa, M. Peetersen *Car* abestia, M. Theodorakisen *Zorba*, M. San Miguelen *Viva la Pepa* jota, K. Vlaken *Kumbayah* eta egun horretarako aproposa den *San Juan* abestia. *Gora Arrasate* abestiarekin amaituko dute.

Baina lehenengo, kalejira egingo dute 11:00etan, eta Seber Altube plazan Arrasateko kiliki eta erraldoiekin ere joko dute.



JOSETXO ARANTZABAL

'Bidasoako margolariak: Javier Sagarzazu, Susana Zaldivar, Carmen Maura' erakusketa zabaldu dute

Bergarako Aroztegi Aretoan erakusketa berri bat zabaldu dute: *Bidasoako margolariak: Javier Sagarzazu, Susana Zaldivar, Carmen Maura* lana. Egubakoitzean zabaldu zuten, eta uztailaren 15era arte iraungo du.

Ordutegiari dagokionez, martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era, zapatue-

tan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era eta domeketan 12:00etatik 14:00etara egongo da irekita.

Baina hori ez da zabalik dagoen erakusketa bakarra. BEART elkarteko pintura ikasle nagusien lanak ere ikusgai daude Kultur Etxean. Ekainaren 28ra arte egongo da zabalik.

IKASTAROA

Malabare ikastaroa antolatu du Loramendik

Uztailaren 3an hasiko da eta 28an amaitu; 16 ordu iraungo du

E.B. > ARETXABALETA

Aretxabaleako Loramendi Euskara Elkarteak malabare ikastaroa antolatu du. Uztailaren 3an hasiko da eta Iturrigorri pilotalekuaren ondo-ko kantxan emango dute.

PLAZA MUGATUAK

Gasteizko Zilipurdi Zirko taldeak emango du ikastaroa. 16 ordu eskola izango dira, eta uztailaren 3an hasi eta 26an amaituko da tailerra. Martitzen eta eguenero izango da, 18:30etik 20:30era.

Izena emateko, Loramendi elkartera jo behar da ekainaren 28a baino lehen, edo 943 77 09 70era deitu. 17 euro balio ditu eta plazak mugatuak dira.

www.euskoautotoyota.es

Kalitaterako bidea eskuekin ukitu
daitekeen zerbait da.



Toyota Avensis 2007 berria, ukipen-pantaila duen nabigatzailea 21.600 €*-tik aurrera.



Serieko ekipamendua:

- GPS nabigatzailea 32.000 koloretako ukipen-pantailarekin
- Aleaziozko hagunak 17" (16" 1.8 VVT-i)
- VSC (egonkortasun kontrola) + TRC (trakzio kontrola)
- + BA (balaztatze asistentzia)
- 9 aire-zaku (belauneko aire-zakuak barne)
- Aire-girogailu automatiko duala
- Cruise control (excepto 1.8 VVT-i)

- Irratia + CD irakurgailua, MP3 eta WMA irakurtzeko gauza da + 8 bozgorailu + aginte kontrola bolantean + prozesadore digitala + ASL (soinuaren oreka automatikoa)
- Barruko ispilu elektrokromatikoa
- Atzerako ispilu termoelektrikoak karrozeriaren kolorekoak. Elektronikoki tolesgarriak eta albo bateko keinu-argi integratuak.

Toyota Avensis 2007 gama:

D-4D Diesel motoreak: 2.0 126 ZP. , 2.2 150 ZP. eta 177 ZP. VVT-i
gasolina motoreak: 1.8 129 ZP., 2.0 147 ZP. Eta 2.4 163 ZP.



TODAY TOMORROW **TOYOTA**

Toyota Avensis bat daukazu 20.800 €**-tik aurrera



FINANCIAL
SERVICES



Kontzesionarioa

EuskoAuto

Olabarrena z/g BERGARA 943 76 23 85
BERGARA EUSKOAUTO ELORREGI

Toyota Avensis 1.8 VVT-i Sol berria (ukipen-pantaila duen nabigatzailea barne). Publikoarentzako salmenta prezioa gomendatua Penintsulan eta Balear Uharteetan, biltegian dauden autoentzat. BEZa, garraioa, matrikulazio zerga, kontzesionarioaren promozioa eta ekarpena barne. Prever Plana EZ dago barne. ** Toyota Avensis 1.8 VVT-i Sol berria. Publikoarentzako salmenta prezioa gomendatua Penintsulan eta Balear Uharteetan, biltegian dauden autoentzat. BEZa, garraioa, matrikulazio zerga, kontzesionarioaren promozioa eta ekarpena barne. Prever plana EZ dago barne. Iragarkiko modelo: Toyota Avensis Wagon Sol. Kontsumo konbinatua 5,5 eta 9,6 l/km tartean. CO2 igorpena 146 eta 228 g/km artean.

JAIK > SAN PEDROAK ESKORIATZAN

San Pedro jaietarako, egitarau zabala antolatu dute Eskoriatzan

Ekainaren 26an, martitzena, hasiko dituzte ekimenak, Kadeteen San Pedro sariko finalerdiekin, eta uztailaren 1ean amaitu

EDURNE BURGAÑA > ESKORIATZA

San Pedro eguna ekainaren 29an ospatzen bada ere, Eskoriatzan, herriko jaietako egitaraua hiru egun lehenago hasiko dute. Horrela, bada, ekainaren 26an Kadeteen San Pedro Saria txapelketaren esku pilotako finalerdia jokatuko dituzte, 18:00etan. Ezin egitarau osoa azaldu, baina hona hemen ekitaldietako batzuk.

SAN PEDRO EGUNA, 29AN

Hurrengo egunean, hilak 27, eda detuendako jaialdia egingo dute 17:30ean erretiratuen etxean. Baina San Pedro bezperan hasiko da benetako jaiak. 18:30ean, jaien hasierako festa kanpaia eta txupinazoa botako dituzte plazan.

Dantzaldia egongo da 20:00etan, plazan, eta 22:30ean, helduen danborrada egingo dute.

San Pedro eguna ekainaren 29an ospatuko da, egubakoitza. 11:40ean, elizbira egingo dute, eta 11:55ean, txistulariekin, Udal Korporazioa San Pedro elizara joango da. Meza nagusia egingo dute bertan 12:00etan hasita.

Musika Eskolako bandaren kontzertua egingo dute plazan 13:15ean. Arratsaldean, 18:30ean, pilota partiduak egingo dituzte pilotalekuan: Berasaluze VIII.a eta Argote Arretxe II.a eta Rairen aurka ariko dira lehenengotan, eta Unanue-Patxi Ruiz eta Koka-Otxandorenaren arteko lehia izango da bigarrena.

Gauerdian, Multivision taldearekin dantzaldia egongo da plazan, eta egun osoan zehar, kars pista egongo da Olaeta plazan.

Zapatua umeen eguna izango da. 12:00etan, Pirritx eta Porrotx



DANBORRADA Umeen danborrada hilaren 30ean egingo dute.

GOIENKARIA

pailazoak arituko dira Gorosarri plazan. 16:30ean, haurren danborrada egingo dute, eta 19:00etan, gaztelekua apaindu eta tortilla lehiaketa dago. Murphy magoaren ekitaldia egongo da 23:00etan Gorosarri, eta 22:00etatik 01:00etara, disko jartzailea arituko da gaztelekuan.

Uztailaren 1ean, Euskal Jaia egingo dute, eta eguna Aretxabaleto eta herriko txistulariek kalejirarekin hasiko da, goizeko hamarrek eta erdietan. 12:30ean, talogileak eta sagardo kupelak jarriko dituzte, eta 13:30ean, trikitilari eskolako ikasleek kalejira egingo dute.

14:30ean, herri bazkaria egongo da Gorosarri, eta 19:00etan, Euskal preso eta errefuxiatuen aldeko kalejira.

Plazan dantzaldia egongo da, Erdizka Lauetan taldearekin, 19:30ean hasita, eta jaiak amaitzeko, traka eta bandera jaitiera egingo dute gauerdian.

2007/08 Nazioarteko programetan parte hartzen dutenentzako laguntzak

gizarte ekintza

berrikuntza

MUNDUA ZURE ESKU.

Gustatuko al litzazuke zure ezagupenak atzerriko unibertsitateetan eta irakaskuntza-zentroetan zabaltzea? Orain, **Gaztekutxaren bitartez** eta **kutxaren Gizarte Ekintzari** esker, **hainbat laguntza** eskura ditzakezu **atzerriko ikasketa-programetan eta praktiketan** parte hartu ahal izateko... eta, bide batez, mundu osoko ikasleekin **esperientzia paregabea eta errepikaezina** bizitzeko.

Izena emateko epea: maiatzaren 15etik ekainaren 30era.

Ez utzi biharko; oraintxe bertan lor dezakezu informazioa.

Sar zaitetz gure web orrian eta ikus itzazu zuretzat prestatu ditugun berritasunak: programak, laguntzen zenbatekoak eta abar.

www.gaztekutxa.net

gazte kutxa

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa

EUSKAL DANTZAK > 31. EUSKAL HERRIKO DANTZA TXAPELKETA

Mikel Igartua eta Ibane Baseta hirugarren geratu dira txapelketan

Azpitarte anai-arrebek hirugarrenez irabazi dute Euskal Herriko Dantza Txapelketa

13 bikotek parte hartu dute Segurako txapelketan; bost dantzari, bergararrak

EDURNE BURGAÑA > BERGARA

Atzo, 31. Euskal Herriko Dantza Txapelketa jokatu zuten Segurako Baratze pilotalekuan. Hamairu bikotek parte hartu zuten, eta guztiek fandangoa eta arin-arina dantzatzea zuten betekizun, biak, zortzi pausokoak. Aurtengoan, hirugarren aldiz, Jon Ander eta Edurne Azpitarte anai-arreba azkoitiarrek irabazi dute.

DANTZARI ONENAK

Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroatik joandakoak ziren parte-hartzaileak; une honetan Euskal Herrian dantza soltearen arloan dauden dantzari onenak. Bost dantzari bergararrak ziren, gainera: Jon Arrillaga eta Izarne Medinak osatutako bikotea, Mikel Igartua eta Ibane Baseta, eta Janire Urbieta, Xabier Azurmendi zegamarrarekin osatutako bikotean.



BERGARARRAK Mikel Igartua eta Ibane Baseta bergararrak, txapelketako une batean; hirugarren postua lortu zuten atzo Seguran.

JUAN MARI BASETA

Eneko Gil eta Nerea Vesga errenteriarrek bigarren postua lortu zuten, eta hirugarrena Igartuak eta Basetak. Garaileek Segurako Udalaren sari nagusia jaso zuten: Nestor Basterretxearen eskultura Azkoitiko udaletxean geratuko da, hiru aldiz jarraian

irabazi dutelako, 700 euro eta oroigarri bana, txapela eta lepokoa, euskal makila bana eta lau bidaia.

EPAIMAHAI

Bigarren sailkatuek 500 euro eta oroigarria jaso zuten, eta berga-

rarrek 400 euro eta oroigarria eskuratu zuten.

Atzoko emanaldia osatzeko, Jon Maia dantzariaren zuzendaritzapean, ikuskizuna egin zuen Kukai taldeak.

Bost kideren ardura izan zen dantzarien lana neurtu eta pun-

tuak ematea: Joxe Juan Ugalde, Rafa Salaberria, Jesus Mari Garate, Jose Antonio Atxukarro eta Gabriel Alonso, guztiak Euskal Dantzarien Biltzarreko kideak. Lau alor neurtu zituzten: erritmoa, berdintasuna, zailtasuna eta osotasuna.



JOSETXO ARANZABAL

Haur dantzari egunean, bederatzi talde

Arrasaten, Lore Gazteak taldeak, Txikitxu Arrostitzekin elkarlanean, Haur dantzari eguna antolatu zuen atzo, domeka. Bederatzi dantza talde bildu ziren herrian: Arrasateko biak, Aretxabaletatik etorritakoa, Antzuolakoa, Oñatikoa, Arabatik etorritako beste bat, Foruakoa eta Irungoa. Goiz eta arratsaldean aritu ziren euren dantzeekin kaleak alaitzen.



JOSETXO ARANZABAL

Haurren danborradan, 380 inguruk parte hartu dute aurtengoan

Arrasateko haurren danborradan, gero eta ume gutxiagok parte hartzen zuten azken urteotan. Hori ikusita, antolatzaileak, SUDCek, eskolatan parte hartzeko dei egin zuen, eta baita emaitza onak lortu ere. Iaz parte hartutakoen ia hirukoitzak hartu dute aurtengoan: zazpi konpainiatan banatuta, 380 umek. Zapatuan izan zen, eta arrasatearrak kalean danbor-joleei begira batu ziren. 19:00etan hasi zen, Zaldibartik, Arrasate Musikaleko bandak lagunduta, eta Herriko plazan amaitu zen.

gazte zerbitzuak

IKASTAROKAK

> **Lanbide hastapeneko matrikula zabalik.** Datorren urtean ikasten jarraitu nahi baina gutxiengo ikasketa mailarik ez baduzu eta 18-21 urte bitartean badituzte, aukera duzu industria mekanikako laguntzaile edo eraikuntzen oinarriko mantenu ikasketak burutzeko. Matrikula epea, ekainaren 14tik 30era.

LEHIAKETAK

> **"Gomendatzen dizut!"** Arrasate, Bergara eta Gipuzkoako Gazteentzako hainbat Informazio Bulego. Oporraldien kontakizun, ostatuari buruzko gomendioen, hiri interesgarriei buruzkoen, deskontuetarako agiriak erabiltzeko aholkuen, etab. inguruko lehia-keta. Epea: irailaren 30a.

> **Elektronikoa.** Donostikluba eta Gin&Tonic Produzioak. Musika Lehiaketa Donostikluba 07 Klubeko musika eta musika elektronikoaren Nazioarteko Jaialdiaren barruan. Epea: uztailaren 15a.

LANA

> **Lan eskaintzak.** Donostiako Musika Hamabostaldia. 2007, 2008 eta 2009ko Musika Hamabostaldietarako lanpostu ezberdinen kontratazioa: Administrazio eremua; Administrazio eta Administrazio Laguntzaileak. Langile Laguntzaileak: Harreman Publikoetarako Laguntzailea, Mandatari Gidaria, Gidariak, Produzio Arduraduna, Produzio Laguntzailea. Interesa dutenek curriculum eta argazkia bidali behar dituzte. Epea: ekainaren 23a.

> **Klarinete irakaslea.** Tolosako Udala Tolosako Eduardo Mocoeroa Musika Eskolarako klarinete irakasle bat hautatzea. Epea: ekainaren 26a.

> **Irakasleak.** Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultateko hainbat arloetarako irakasleen lan-poltsa: Euskal Filologia, Pedagogia, Soziologia eta Ikus-entzunezko Komunizazioa. Epea: ekainaren 30a.

BEKAK

> **Doktoreak.** Eusko Jaurlaritzak. Atzerriko unibertsitate edo ikerketa zentroetan ikerketa proiektu bat egin nahi duten doktoreak ikerketan trebatzeko beka. Epea: ekainaren 24a.

EKINTZAK

> **Kontzertua.** Gipuzkoako Foru Aldundia. Gaztemaniak kontzertua, Karidadeko Benta. Ekainaren 15ean izango da, Donostiako Lugaritz Kultur Etxean, iluntzeko 22:00etan.



ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euska.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Baseria salgai lur-sailekin. Deitu 943 76 65 03 edo 943 76 62 98 zenbakietara.

Arrasate. Etxebizitza salgai San Andresen. 57 m². Guztiz bertutua. Bilogela, egongela, bainugela eta sukaldia. Kanpoalde-bera. Igogailu eta sotoa. Deitu 620 15 12 12 zenbakira.

Arrasate. Etxea salgai Grupo San Juanen. 60 m², eguzkitsua, ganbararekin eta sotoarekin. Berogailu individuala. Deitu 606 25 92 80 telefonora.

Bergara. Boni Laskurain kalean. Eguzkitsua. Bizitzera sartzeko gertu. 90 metro koadro. Prezio interesgarria. 685 72 40 30.

Bergara. Etxea salgai herri erdian. Lau logela, 3 bainugela, altzariek. 390.658 euro. Deitu 659 44 76 75 zenbakira.

Bergara. Ibarra kalean. 50 metro koadro. Berogailuarekin. Jantzita. Eraberritu berria. Sukalde amerikarra. Bi logela. Eguzkitsua. 635 71 04 55.

Bergara. Simon Arrietan, 57 metro koadro, bi logela, egongela, sukaldia, bainugela eta trastelekua. igogailuarekin. 646 63 11 74.

Cangas de Morrazo (Rias Baixas). Bi logelako apartamentua errentan ematen da. Herriaren erdian dago. Garajea dauka. Bista ederrek Vigora. 609 36 60 47.

Donostia. 72 m²-ko etxea salgai. Igogailuarekin. Bizitzera sartzeko moduan. Bista ederrak. 396.070 euro. 658 73 08 56.

Guardia (Laguardia). 80 m². Sukaldia, hiru logela, egongela, bainugela, bainugela eta 30 m²-ko ganbara. Jantzita. Hirigunean. Eguzkitsua. Prezio adosteko aukera. Deitu 943 77 21 24 edo 696 02 42 10 zenbakietara.

Oñati. 120 m²-ko duplexa salgai. Herri erdian. Bizitzera sartzeko moduan. Argitsua eta material ederrarekin. Hiru logela, bi komun, sukaldia, egongela eta estudioa. 676 39 36 93.

Oñati. Apartamentua salgai San Lorenzo auzoan. Saloi-sukaldia eta bi logela. Eguzkitsua, terraza handiarekin. Garajea aukeran. Deitu 658 75 22 37 edo 943 78 18 38 zenbakietara.

Oñati. Duplexa salgai zentroan. Lau logela, bi komun, sukaldia, egongela eta garajea. Deitu 670 85 85 41 zenbakira.

Oñati. Etxea salgai Ugarkalde auzoan. Berria. Hiru logela, bi komun, sukaldia, egongela eta terraza. Eguzkitsua. Prezio interesgarria. Lehenbailehen saltzeko premia. 670 27 45 82.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. 07/08 ikasturterako 4 ikaslerendako etxebizitza errentan ematen da Unibertsitate gertu. 686 20 04 72.

Arrasate. Bi logela alokatzen dira bi-hiru ikaslerentzat Larrea plazan. Etxe berria, estreinatze. Ramon. 630 21 46 02.

Arrasate. Etxebizitza errentan ematen da ikaslerentzat; emakumezkoak nahiago. San Andresen. Erabat berrituta, estreinatzeke: hiru logela, sukaldia hornitua (mikrouhin-labea, bitrozeramika...), egongela eta komun. Igogailua. Unibertsitate gertu. 600 60 56 71.

Arrasate. Logela daukat errentan emateko. Unibertsitate gertu. 695 71 08 94.

Calpe (Alacant). Etxebizitza emango nuke errentan uztaiz, abuztu eta irailerako. Bi logela eta terraza ditu. Hondartzatik 100 metrora. 655 71 57 97.

Costa Ballena (Cadiz). Uztaile-rako 2 logeladun etxebizitza ematen dut errentan. Garajea eta

IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 01 sailkatuak@goiena.com
http://www.goiena.net/sailkatuak

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 18 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIAN BIETAN, ARGITARATUZ GERO 25 EURO (+BEZ).

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor ditezkeen operazioen erantzukizunik.

igerilekua. Hondartzatik bost minutura. 679 84 62 48.

Costa Sancti Petri-Chiclana (Cadiz). Guztiz hornitua. Apartamentua. Ekainerako, abuztuaren bigarren hamabostaldira eta irailerako. Leku zoragarrian, urbanizazio berrian. Igerilekua, mini-golfa, lorategiak... La Barrosa hondartzatik oso-oso gertu. 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

Cuzcurrita del Rio Tiron (Errioxa). Apartamentua errentan ematen da. 941 30 15 12.

Hondarribia. Abuztuan. Hirigune erdian. Bigela, bainua, sukaldia egongela eta balkoia. Deitu 625 13 96 58 telefonora.

Loreda. Apartamentua alokagai daukat Loredon (Kantabria) abuztuan. Bi logela ditu, etahondartzatik 500 metrora dago. 943 79 81 38 edo 679 35 29 70.

Noja. Apartamentua errentan ematen da. 635 75 35 29.

Peñíscola. Apartamentua errentan ematen da ekainetik irailera. Hondartzatik gertu. Igerilekua. Parkinga. 943 79 48 82 edo 605 75 61 69.

Peñíscola. Apartamentua errentan ematen da. 945 29 33 80.

Torreveja. 4-6 pertsonerendako apartamentua errentan ematen da. Hondartzara ondoan. Deitu 657 79 47 95 zenbakira.

Vera (Almería). Hondartzatik eta urbanizazio naturistan dagoen etxebizitza errentan ematen da. Guztiz jantzita. Igerilekua-rekin. 657 73 94 25.

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Etxea hartu nahi dut errentan. Ezinbestekoa da igogailua edukitzea. Deitu 606 25 17 74 zenbakira.

Aretxabaleta. Senar-emazte batzuek etxebizitza hartuko

lukete errentan. Deitu 696 38 10 07 edo 646 93 23 24 telefonoz zenbakietara.

Eskoriatza. Hiru logelako etxebizitza bila gabiltzan hiru ikasle gara. Interesatuok deitu mesedez zenbaki honetara. Deitu 645 72 33 51 edo 649 21 62 71 zenbakietara.

Gasteiz. Lau ikasle gara eta etxebizitza hartu gura genuke errentan, urte osorako. Ane. Deitu 685 76 42 81 telefonora.

105. ETXEAK OSATU

Aretxabaletan etxea osatzeko lagun bat behar dugu. Deitu 653 70 50 68 edo 652 72 00 06 zenbakietara.

Arrasate. Logela errentan ematen dut, unibertsitate gertu. 665 13 31 10.

Legazpin. Itxaropen auzoan. Logela bat alokatzen da pertsona batentzat; emakumezkoa nahiago. 649 92 19 48.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Garajea saldu edo errentan ematen dut. Urribarrin. 625 47 61 62.

203. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Asuncion kalean garaje itxia ematen da errentan. 943 77 12 81.

Arrasate. Ferrixalekuan garaje itxia errentan. Deitu arratsalde. Deitu 605 74 52 02 telefonoz zenbakira.

Bergara. Zubiaurren garaje itxia ematen dut errentan, 108 metro karratu; autoak gordetzeko edo biltegi moduan erabiltzeko. Deitu 679 74 00 61 zenbakira.

ARETXABALETA

Sukaldaria behar da goizez edo arratsaldean lan egiteko. 675 70 82 36

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Emakume behar da emeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduategia: 08:00etatik 15:00etara. Deitu 639 03 43 58 zenbakira.

Bergara. Etxe garbitzeko eta emeak zaintzeko emakumea behar da. 653 74 36 47.

Bergara. Etxeko lanak egiteko norbait behar da asteko egun baterako. 943 76 25 08.

402. ESKAERAK

Arrasate. Emakume bat pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Eskarmentua. 943 08 12 80.

Bergara. Emakume bat gertu garbitasun lanak edo beste edozein lan egiteko egun erdiz edo orduka. 671 18 50 83.

Bergara. Gizon bat gertu igel-tserotza lanak egiteko edo sukaldia laguntzaile edo zerbitzari izateko. 617 68 62 40.

Bergara. Nagusiak zein emeak zaindako nituzke. Eskarmentua. 606 64 16 09.

Bergara. Neska bat gertu pertsona nagusiak zaintzeko, garbitasun lanak egiteko edo sukaldia laguntzaile izateko orduka, goizetan. 620 42 31 45.

Bergara. Neska gertu arratsaldean lan egiteko. 696

84 19 51.

Debagoiena. Emakume batek emeak edo nagusiak zaintzen egingo luke lana. Etxean bizitzeko gertu dago. 659 37 41 95.

Debagoiena. Emakume gaztea lan bila dabil, orduka, etxe barruan, asteburuan; Garbiketa lanak egingo litzuke edo pertsona nagusiak edo emeak zaindako litzuke. 619 92 40 86 edo 659 37 41 95.

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko edo bestelako edozein lanetan jarduteko, orduka edo egun osoan, baina etxetik kanpo lo eginda. 696 11 57 02.

Debagoiena. Emakumea gertu garbitasun lanak egiteko, emeak edo pertsona nagusiak zaintzeko, sukaldia laguntzaile izateko edo zerbitzaria izateko. 663 46 93 60.

Debagoiena. Emakumea gertu pertsona nagusiak zaintzeko goizetan. Baita jate txean lan egiteko ere, sukaldia laguntzaile nahiz garbitasun lanean. Deitu 620 42 31 45 zenbakira.

Debagoiena. Emakumea gertu emeak edo nagusiak zaintzeko. Etxean bizitzeko ere gertu. Deitu 686 44 70 38 telefonora.

Debagoiena. Emakumea gertu emeak edo nagusiak zaintzeko. Etxean bizitzeko ere gertu. Deitu 696 30 19 10 zenbakira.

Debagoiena. Gizona gertu asteburuetan edozein lan egiteko. 696 38 10 07.

Debagoiena. Mutila gertu garbitasun lanak egiteko, nagusiak zaintzeko edo sukaldia laguntzaile edo zerbitzari izateko. 627 65 02 71.

Debagoiena. Nagusiak zaindu zein etxeko lanak egingo nituzke. 686 99 59 41.

Debagoiena. Neska sukaldian lan egiteko gertu. 695 71 08 94.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Antzuola. DBHko 2. mailako ikasleak eskola partikularrak jasoko litzuke, uztailean. Deitu 617 00 37 31 telefonora.

502. EMAN

Arrasate. Uztailean eskola partikularrak eta ikasteko teknikak ematen dira. Esperientzia handia. 658 70 67 84.

Bergara. Maila guztietan eskola partikularrak ematen dira gai hauetan: matematika, fisika, kalkulua, algebra eta mekhanika. 696 38 10 07.

Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrak ematen ditu Arrasaten. Maila guztiak: unibertsitate, zikloak, batxilergoa, DBH. Matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektrizitatea...Arreta pertsonalizatua. 630 71 35 83.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Audi A6 Cuattro autoa salgai. 2.5 tdi. 140 zaldi. 175.000 km. 636 77 71 58 edo 943 76 58 93.

Audi A3 Ambition 19 Tdi. 110 ZP. Beltza. 1999koa. Honako gehigarriak ditu: RCD, MP3, Blue-

tooth Parrot eta margotutako kristalak. 7.500 euro. Deitu 649 04 32 97 zenbakira.

Bergara. Chrysler Voyager SS-BF salgai. 943 76 57 47 edo 620 69 85 96.

Citroen Xantia HDI 2.0. Zortzi urte. 627 81 54 82.

Ford Focus Trend 1.6 salgai. 100 ZP. 84.000 km. 6 urte ditu, 5 ate eta kolore zuria. Oso egoera onean. Deitu 639 17 49 52 zenbakira.

Honda VFR 750 motorra salgai. Oso egoera onean. 3.300 euro. 699 86 81 21 edo 943 79 88 97.

Jeep Cherokee 2.1 Td Limited. Margotu berria. Oso egoera onean. 4.500 euro. Arratsaldean deitu. Deitu 655 45 07 25 telefonora.

KTM 450 EXC motorra salgai. 2003koa. Egoera onean. 4.800 euro. 649 12 90 93.

Passat TDI 130 ZP. 58.000 Km. Gris iluna. 17.000 euro. Deitu 667 31 37 45 zenbakira.

Piaggio Typhoon motorra salgai. 49 cc. 11.000 km. 450 euro. Deitu 609 54 89 89 telefonora.

Seat Alhambra Sport monobolumena salgai. Egoera onean. 653 71 04 56.

7/ ANIMALIAK

703. EMAN

Etxeko lau katakume oparitzen dira. Oso politak. Deitu 635 74 34 55 zenbakira.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Karro-denda salgai. 6 lagunendako. Egoera onean eta gehigarri guztiek. Deitu 645 73 13 94 zenbakira.

Karro-denda salgai. Inesca-Marbella markakoa. 3 urte ditu. Sukaldia eta izozkailua. 1.500 euro. 659 04 37 70.

Mendi bizikleta salgai. BH Supra 200 modeloa. Gorria da. Deitu 616 56 12 59 telefonora.

Sony telebista. Panoramikoa. 100 Hz. 32". Altzari eta guzti. 607 63 48 88.

Ume kotxea. Bikiendako ume kotxea salgai daukat. McLaren Twin Traveller markakoa. Oso gutxi erabilia. 676 83 25 62.

Ume-kotxea. Chicco etxeko kotxe tolesgarria. Kapota, estalki eta guzti. Eurirako plastikoa barne. 150 euro. 639 02 02 75 edo 943 76 55 88.

802. EROSI

Nekazaritza lanak aurrera eramateko lursaila erosiko nuke Arrasate edo Antzuola inguruan. 605 76 05 59.

803. EMAN

Koltxoia eta somierra doan. Egoera onean. 943 79 19 62.

806. GALDU

Arrasate. Txaketa grisa galdu nuen ekainaren 1ean, goizean, Nafarroa etorbidearen inguruan. Topatu baduzu, ezker-tuko nizuke deitzea. Leire. Deitu 650 30 89 22 zenbakira.

Bergara. Eskumuturrekoa galdu dut; urrezkoa da eta tarteka urre zuria du. 645 00 56 81.

Giltza galdu dut. Renault Espace autoarena. Ekainaren 2an galdu nuen, seguruen Aretxabaletan ospatu zen Mundumira jai-ko umeen gunean. Topatu baduzu, esker-tuko nizuke deituko bazenu. 667 89 28 38.

LAN ESKAINTZA

Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatiba Elkarteak

KOMERTZIALA behar du Debagoienerako:

Eskaintzen da:

- Etorkezuneko proiektu batean parte hartzea.
- Lantaldean lan egitea.
- Laneko kontratua, Gizarte Segurantzarekin.
- Soldata interesgarria.
- Egun osoko lan jarduna.

Eskatzen da:

- Euskaraz jakitea (ezinbestekoa da).
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa izatea.

Kontuan hartuko da:

- Marketineko ikasketak izatea.
- Publizitate eta komertzial lanetan eskarmentua izatea.
- Debagoienerako edo inguruan bizitzea eta ondo ezagutzea.

Curriculumak bidali ekainaren 20a baino lehen ondorengo helbidera: admi@goiena.com



astea GOITBn

Astelehena, 18



> **Bergarako motokrosa izango da ikusgai 21:15**

Zapatuan Bergaran egin zen motokrosa izango da *Harmailatik* saioan. Bestalde, Athletic eta Realaren azken partidak ere aipatuko dira.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Teknopolis.
14:15 Ikusten.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Ilunpean.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Bizitegia.
16:15 Erreportajea.
16:45 Albisteak.
17:15 Calimero.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Ur eta lur.
18:45 Albisteak.
19:15 Erreportajea.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak: Calimero.
20:45 Gaurkoak.
20:47 5 x 5.
21:15 Harmailatik.
21:45 Berriak.
22:15 Hasiberriak.
22:45 Berriak.
23:15 Didjeridu.
23:45 Gaurkoak.
23:30 Ikusmira.
00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 19



> **Udalbatzen eraketaz egingo da berba 21:47**

Berbaire berezia izango da gaur: hala, ibarrean alkatetzeta lortu duten alderdi guztietako ordezkariak izango dira mahaiaren bueltan.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Boboboak.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Harmailatik.
14:15 5 x 5.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Eltze beroa.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Telesaia.
16:15 Ikusmira.
16:45 Albisteak.
17:15 Boboboak.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Ilunpean.
18:15 Bizitegia.
18:45 Albisteak.
19:15 Harmailatik.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak: Boboboak.
20:45 Gaurkoak.
20:47 Erreportajea
21:15 Berbaire.
21:45 Berriak.
22:15 Harmailatik.
22:45 Berriak.
23:15 Ikusmira.
23:45 Gaurkoak.
23:30 Musikantoi.
00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 20



> **Kilometroak 07 'Zu kazetari' programan 21:15**

Ekainaren 8an izan zen Kilometro-en jaia, Bergarako frontoian. *Zu kazetari* saioan, ekitaldia ikusiko dugu, eta baita aurtengo kantua entzun ere.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Berbaire.
14:15 Erreportajea.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Ur eta lur
15:45 Gaurkoak.
15:47 Didjeridu.
16:15 Eltze beroa.
16:45 Albisteak.
17:15 Calimero.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Harmailatik.
18:15 Eltze beroa.
18:45 Albisteak.
19:15 Teknopolis.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak: Calimero.
20:45 Gaurkoak.
20:47 Zu kazetari.
21:15 Berriak.
21:45 Teknopolis.
22:45 Berriak.
23:15 Berbaire.
23:45 Gaurkoak.
23:30 Ur eta lur.
00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 21



> **S.A. taldearen inguruko saioa 'Musikantoi'-n 22:15**

Gaurkoan, Soziedad Alkoholika taldearen bideo-klip zahar eta berriak, kontzertuetako irudiak nahiz bitxikeriak izango ditugu.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Boboboak.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Zu kazetari.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Eltze beroa.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Telesaia.
16:15 Ikusmira.
16:45 Albisteak.
17:15 Boboboak.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Eltze beroa.
18:15 Teknopolis.
18:45 Albisteak.
19:15 Bizitegia.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak: Boboboak.
20:45 Gaurkoak.
20:47 Didjeridu
21:15 Berbaire.
21:45 Berriak.
22:15 Musikantoi.
22:45 Berriak.
23:15 5 x 5.
23:45 Gaurkoak.
23:30 Ilunpean.
00:15 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 22



> **Perretxiko eta onddo budina 'Eltze beroa'-n 16:15**

Iñigo Ordorikaren eskutik, perretxiko eta onddo budina gorgonzola saltsarekin nola egiten den ikasiko dugu *Eltze beroa* saioan.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Berbaire.
14:15 Musikantoi.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Ikusten.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Didjeridu.
16:15 Eltze beroa
16:45 Albisteak.
17:15 Calimero.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Zu kazetari.
18:45 Albisteak.
19:15 Erreportajea.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak: Calimero.
20:45 Berriak.
21:15 Teknopolis.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Hitz bitan.
22:15 Ilunpean.
22:45 Berriak.
23:15 Berbaire.
23:45 Gaurkoak.
23:30 Musikantoi.
00:15 Emisio amaiera.

arrasate irrata

FM 107.7

> **Alkate berriarekin elkarrizketa 10:30**

Zapatuan osatu ziren Debagoieneko udalbatza berriak, eta, gaur goizean, Ino Galparsoro Arrasateko alkate berriarekin berba egingo dute Arrasate Irratian. Eskualde osoko errepasoa ere egingo dute.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Elkarrizketak
Erakundeen geltokia
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
12:05 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
17:15 Zorion agurren tartea (errep.)

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua.
Aste osoan barrena egindako elkarrizketen eta gainontzeko edukien laburpena

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua

gertutik



Karlos Argiñano Sukaldaria

"Argi daukat ez nintzatekeela inoiz politikaria izango"

AMAIA ZALDUA > BERGARA

Karlos Argiñano Beasainen jaio zen 1948an. 18 urterekin, Zarauzko Euro-mar hotelean hasi zen. 1978an, jate-txea ireki zuen Zarautzen, eta herri horretan bizi da. Sukaldaritzako programak egin ditu telebistan, eta egun Telecincon dabil.

Nolatan erabaki zenuen pantaila aurrean aritzea?

Pentsatu nuen sukaldaritzako programa bat beharrezkoa zela, eta nik esan nien ETBkoei ea aukerarik egongo zen egiteko.

Telebistan ikusten dena Karlos bera da, ala pertsonaia bat?

Karlos Argiñano Urkiola. Hori bakarrik ezagutzen dut nik.

Zeintzuk dira arrakastaren osagaiak?

Ofizioa, garbitasuna, umorea eta taldeko lana. Horiek gabe, ez zen ezer posible izango.

Umorea beharrezkoa da sukaldarian, zure iritziz?

Umorea toki guztietan da beharrezkoa.

Zer iritzi du munduak euskal sukaldaritzaz?

Hiru sukalde onenen artean dagoela pentsatzen dut. Beste biak txinatarra eta frantsesa izango dira, akaso.

Ostalaritza munduko familia zarete. Nondik atera da zaletasun hori?

Nirekin hasi zen; izan ere, nire familian, aurretik, ez dago sukaldaririk. Orain ikusten dut batzuk atzetik datozela.

Filmetan ere parte hartu duzu. Zer moduzko esperientzia izan da?

Oso polita eta ezberdina; telebistarekin ez du zerikusirik. Filma da entretenigarria eta fikzioa.

Zertan ari zara egun?

Eguneroko programa prestatzen; hemendik aurrera, Zarautzen, hondartzan, hasiko naiz, eta hurrengo hiru urteetarako kontratu berria negoziatzen ari gara.

Zer ez zenuke inoiz egingo?

Politikaria izan.

asteko hitzorduak

Zinekluba



ELGETA

> **Eguaztengan, zinekluba izango da Elgetako Espaloia Antzokian**

Etzi, eguaztenta, *La isla* izeneko filma eskainiko da Espaloian gaueko 21:30ean. Film hori 2005ean zuzendu zuen Michael Bay-ek, eta akziozkoa da. Bertan lan egin zuten aktoreak Ewan McGregor eta Scarlett Johansson dira.

Kontzertuak



ARRASATE

> **Oraingo zapatuan, musika eskaintza zabala izango da 3.60 aretoan**

Hilaren 23an, Discipline, Never Surrender (argazkian) eta Secret Army izango dira 3.60 aretoan, 22:30ean. Gero, 03:00etan, Nothing Without electronic party izango da, eta Franco Bianco eta Koldo intermusic arituko dira zuzenean.

Kontzertuak



BERGARA

> **Domekan, hilak 24, bi abesbatzaren kontzertuak izango dira Bergaran**

Bergarako Gabero abesbatzak eta Ordiziako Oroit Txiki abesbatzak kontzertua eskainiko dute oraingo domekan Bergarako Mariaren Lagundiko elizan. 19:00etatik aurrera, bi talde horien musika disfrutatzeke aukera izango da.

kuxkuxeroa



Arantzazu Ezkibel

Mirariak... non eta zenbatean?

Mirariak, Lourdesen!, esaten da, eta horiek ere, azkenaldian gutxi! Realzaleak mirariaren zain egon ginen atzo, baina, hirugarren jardunaldiaz gero jai-tsiera postuetan egonda, zer espero genuen? Lehenengo minutuan **Garitanok** sartutako golak ezer gutxirako balio izan zuten **Mestallan**. Datorren urtean, **Eibar 2**. A mailara igotzen bada, derbia ikusiko dugu **Ipuruan**. Gerutuago eta merkeago!

Lehenengo mailako ikuskizuna, zapatuan motokrosean ikusi genuena. Hori bai,

"Zapatuan, Zubikoa kiroldegian, eskubaloiko neska-mutilek 600 ur botila edan zuten"

nik bizitza guztiko CO2 kupoa bete dut. Hura zen kea eta hautsa! Bergara gaineko ozono kapak igarriko zuen...

Zubikoan, zapatuan, ez zuten hautsik izan, baina ura, sendo edan zuten: 600 botila. Pentsatu nahi dut bertan bildutako guztien artean edango zutela, bestela, pertsona bakarrak edan baldin bazuen hori guztia, hark ere bizitzako ur kupoa beteko zuen! Edo zapaburuz betea izango du tripa: bata edo bestea.

Zapatuan, Bergarako **Emon** taldeak kontzertua egin zuen Soraluzen. Herriko lagun asko joan zen bertara, musikariak animatzera. Bestalde, atzo, **ETB2n**, goizeko meza Bergarako Mariaren Lagunditik eman zuten. Kontzertuan izan zirenak joan ote ziren mezatarak?

asteburuko albuma



Erretiratuen kirol jaia. Ikasturte amaierako jaia egin zuten Elgetan kurtsoan barrena erretiratuen gimnasia taldeetan ibili diren erretiratuek. Mankomunitateak hamaseigarren urtez antolatutako jaia izan zen eta, bariku arratsaldean, hainbat kirol egiteko aukera izan zuten adinekoek: ibilaldia, badminton, hockeya, piloten saskiratzea... Jaian parte hartu zuten guztiek merienda izan zuten, eta kamiseta bana eman zieten opari. Kirol jaiaren ospakizuna dantzaldiarekin borobildu zuten.



Olakua auzoko jaiak. Eguraldi ona eta giro ezin hobea izan dituzte lagun Oñatiko Olakua auzoko jaietan. Egubakoitz eta zapatu gaueko kontzertu eta dantzaldietan jende asko ibili dela esan digute antolatzaileek. Auzo bazkarian ere, 45 lagun elkartu ziren eta, bazkalostea girotzeko, Maialen Lujanbio eta Amaia Agirreren bertsoak eta herriko trikitilarien doinuak izan zituzten. Umeek ere izan dute zerekin gozatua, txorimalo, jolas eta gaztelu puzgarriekin. Mus txapelketak eta txirindulari lasterketak osatu zuten jaietako egitaraua.



Umore Onakoak San Martzialen.

Bergarako Umore Ona elkarteko kideek ohitura dute ekaineko bigarren astean San Martzialera joateko. Hortaz, ohiturari jarraituz, hogeit lagun San Martzialera joan ziren, eta bertan bazkaldu zuten. Kantu poteorik ere ez zen falta izan egun hartan, eta toka jokoan duten abilezia ere erakutsi zuten. Ignacio Madinabeitia eta Julio Unamuno izan ziren irabazle. Guztiek egun polita pasa zuten lagunartean eta kantu giroan.



Gaztetxeko zazpigarren urteurrena. Zapatuan ospatu zuten Bergarako gaztetxeko zazpigarren urtemuga. Eguerdian, bazkari begetarianoa egin zuten eta, arratsaldean, Hernaniko talde baten eskutik, akelarrea izan zen herriko kaleetan. Trikiti doinuekin dantzan ibili ziren, eta puxikekin jendea astintzen ere jardun zuten. Gauean, urteurrenaren baitan, Txapa jaia izan zen gaztetxean. Iruñeko Royal Canal, Arrasate eta Oñatiko MC6 eta Bergarako Black Sheeps taldeak aritu ziren. Mansillaren rock-and-roll festarekin amaitu zuten.



Jaiak San Antonion. Martitzenetik ari dira jaiak ospatzen Bergarako San Antonio auzoan. Paduako Antonio Deunaren egunean, San Joxepeko abesbatzak jardun zuen, besteak beste. Hala ere, zapatuan izan ziren ekitaldi nagusiak: umeendako, animalien ikuskizuna eta kilikiak; kirolzaleendako, txirindulari lasterketa; mus txapelketa ere, karta jokoan abila direndako; eta auzotar zein bertara joan zirendako, Gure Ametsa elkartearen aurreko plaza, sardina jana. Bapo afaldu zuten San Antonion, musika lagun zutela.

ESKELA

Isidro Txintxurreta Ugalde


Josu Txintxurreta Goienako langilearen aitaita

Aretxabaletan hil zen 2007eko ekainaren 14an, 91 urte zituela.

GOIENAK bat egiten du senideen saminarekin.

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

Aretxabaletan, 2007ko ekainaren 18an.



ESKELA

Leonor Urrutia Erguin


Sergio Azkarate Goienako langilearen amama

Gasteizen hil zen 2007eko ekainaren 15an, 76 urte zituela.

GOIENAK bat egiten du senideen saminarekin.

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

Arrasaten, 2007ko ekainaren 18an.



hildakoak

- **Consuelo Altube Mugika.** Arrasaten, ekainaren 15ean. 88 urte.
- **Maximo Arregi Etxabe.** Arrasaten, ekainaren 16an. 84 urte.
- **Leonor Urrutia Erguin.** Arrasaten, ekainaren 16an. 76 urte.
- **Isidro Txintxurreta Ugalde.** Aretxabaletan, ekainaren 16an. 91 urte.
- **Maria Urrutia Otxoa.** Aretxabaletan, ekainaren 16an. 76 urte.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
943 25 05 01


Eskelaren prezioa: 87 euro.

Erregala berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAN, bietan, argitaratuz gero, **100 euro.**

Goienkaria: astero, 45.000 irakurle.



zorion agurrak



ANTZUOLA
Amaia Mundiñano
Ekainaren 11n, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako! Ondo pasau bei? Aupa Etxarri! Goienako lankideak.



OÑATI
Irune Zumalde
Ekainaren 11n, 26 urte. Zorionak kuadrillian partetik, xalada!



ARRASATE
Aimar Errasti
Ekainaren 13an. Etxeko partetik, zorionak eta muxu handi bat! Anaia Unaxek, beste besarkada handi bat!



ELGETA
Ander Sarasua Zeberio
Ekainaren 13an. Zorionak, txiki! Bete duzu lehenengo urtea! Musu handi handia gurasoen partetik.



BERGARA
Pello Gallastegi Lete
Ekainaren 16an, 2 urte. Zorionak eta muxu asko, lehen-gusina Eider eta etxeko partetik.



ESKORIATZA
Deiane Arrieta
Ekainaren 14an, 24 urte. Zorionak, potxola, Goienako partetik!



OÑATI
Ainhoa Zubizarreta
Ekainaren 14-an, urtebete. Zorionak, potxola! Aramaixoko familian partetik, laztan handi bat.



ARRASATE
Haizea Apellaniz
Ekainaren 14an, 5 urte. Zorionak, Arizmendi Sanvi Txikiko lagun partetik!



ARRASATE
Unai Alonso
Ekainaren 15ean, urtebetetzea. Zorionak, etxeko partetik!



ARRASATE
Iker Alonso
Ekainaren 15ean, urtebetetzea. Zorionak, etxeko partetik!



BERGARA
Garazi Bizente
Ekainaren 17an, 4 urte. Zorionak, Beñaten eta etxeko partetik!



OÑATI
Ibai Cano
Ekainaren 15ean, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat aitatxo, amatxo, eta lagun partetik!



BERGARA
Nerea Larrañaga
Ekainaren 16an, 10 urte. Zorionak, etxeko partetik!



ARRASATE
Saioa Lopez de Bergara Moreno
Ekainaren 17an. Zorionak, Saioa, etxeko partetik eta, bereziki, Uxueren partetik. Musutxo pillo bat!



ELGETA
Leire Balamendia
Ekainaren 17an. Zorionak, etxeko partetik!



ESKORIATZA
Iker Fernandez
Ekainaren 18an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat! June, gurasoak eta etxeko guztiak.



DEBAGOIENA
Mainer Atxa
Ekainaren 18an, urtebetetzea. Zorionak, Mainer eta muxu handi bat, etxeko partetik!



BERGARA
Maddi Oregi
Ekainaren 18an, 3 urte. Zorionak etxeko partetik, bereziki Anderren partetik!



BERGARA
Nerea Mujika
Ekainaren 19an, 10 urte. Zorionak, familaren partetik!



OÑATI
Leire Egaña
Ekainaren 19an, urtebetetzea. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko partetik!



ARRASATE
Oier Etxebeste Rodrigo
Ekainaren 19an, 5 urte. Zorionak eta patxo bana Aimar eta Jurgi lehen-gusuen partetik. Aupa Real!



ESKORIATZA
Ana Simal
Ekainaren 20an, urtebetetzea. Zorionak, Ana, eta ondo pasatu eguna! Familia guztiaren partetik, bereziki, Niko eta Idoia.



BERGARA
Jon Gantxegi
Ekainaren 20an, 7 urte. Zorionak etxeko partetik, bereziki Itsaso.



ARETXABAETA
Josu Irure Aiastui
Ekainaren 20an, 9 urte. Zorionak eta urte askotarako, lagun partetik!



OÑATI
Arantzazu Ezkibel
Ekainaren 22an, urtebetetzea. Zorionak eta ondo-ondo pasatu! Lankideak.



BERGARA
Xabier Igartza
Zorionak eta patxo handi bat Mikel eta etxeko partez



BERGARA
Erika Yue Borge
Ekainaren 24an hiru urte. Zorionak etxeko partetik.

jaioetakoak



Martin Alonso Belategi
Eskoriatza > 4,150 kilo. Ekainaren 11n. Gurasoak: Itziar (Eskoriatza) eta Karlos (Arrasate). Argazkian, Martin txikia, aitaren besoetan.



Markel Iragi Atxa
Arrasate > 3,950 kilo. Ekainaren 14an. Gurasoak: Nerea (Arrasate) eta Mikel (Arrasate). Argazkian, Markel, amama Inma eta Kororekin.



Anartz Calleja Arribillaga
Bergara > 3,100 kilo. Ekainaren 14an. Gurasoak: Maite (Irun) eta Unai (Aretxabaleta). Argazkian, amama Inarekin, aitaita Pedrokekin eta amarekin.



Eneko Makazaga Manteca
Aretxabaleta > 3,390 kilo. Ekainaren 14an. Gurasoak: Miriam (Aretxabaleta) eta Aitor (Aretxabaleta). Argazkian, umea, izeba Lolirekin.



Iker Rubia Borsi
Arrasate > 2,480 kilo. Ekainaren 16an. Gurasoak: Gloria (Arrasate) eta Miguel Angel (Arrasate). Argazkian, umea, kumatxoan lo.

PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

Tarte hau zure txokoa da, irakurle.

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera:
astelehena@goiena.com

BABESLEA



IKUSI MAKUSI



Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Joseba Olagarai > Telebista aurkezlea

"Erakargarria zait Bilbo; ez nuke aldatuko"

JOKIN ETXEBARRIA > BERGARA

ETBko *Betizu* programako aurkezlea da Joseba Olagarai. Oporrak hartuko ditu oraingo hilabetean, programa bukatzen denean, eta dagoneko pentsatu du udako oporretan zer egingo duen.

Behiekin egotea ohituta egongo zara dagoneko, ezta?

Behiak, txakurrak, tximinoak... Konturatzen zara animalia batzuk jende asko baino erakarriagoak direla.

Programan jantzen duzun arropa-eta zuk aukeratzen duzu? Eta orrazkera?

Telebistan, orain arte, inoiz ez dut ezer behartuta egin. Zuzendariaren, programako estilisten eta nire artean hartzen dugu erabakia. Desberdin jantzen naiz telebistan eta kalean, baina pantailako irudiarekin gustura nago.

Bilbon bizi eta Donostian egiten duzu lana. A-8a ondo ezagutuko duzu.

Salatzekoa da autobide hori. Lotsagarria. Ez luke legezkoa izan behar kobratzen dutena

kobratzea eta hain zerbitzu penagarria eskaintzea. Egutero dabilenak bakarrik daki zein *mala-letxerekin* heltzen den bat lane-tik etxera ia egutero.

Abiada bizian ala poliki ibiltzen zara?

Bizia eta ipurterrea naiz, baina badakit gauzei neurria hartzen. Susto bat izan nuenetik, lasai ibiltzen naiz.

Nolakoa da Bilbon bizi izatea? Etxalarren bizitzea baino hobea da?

TEST-A

Herria: Etxalar. Egun Bilbon bizi naiz. **Adina:** 23 urte. **Ikasketak:** Kazetaritza. **Zaletasunak:** Bidaia-tzea, lagunak, zinema, egun-pasak han edo hemen. **Gustuko musika talde bat:** Nire azken aurkikuntza: Fangoria. **Liburu bat:** Uxue Alberdiren *Aulki bat elurretan*. **Bortzirikiak:** Nire eskualdea; momentu on askoren lekua. **Etxeko lanetan nola moldatu:** Pazientziarekin, umorearekin eta konpainia onarekin.

Gaua eta eguna. Etxalarren jaio nintzen, eta hura izango da beti nire txokoa, baina orain Bilbon oso gustura nago. Erakargarria zait, ez nuke aldatuko. Hala ere, ez naiz plan asko egitekoa, eta ez dakit bihar non egingo dudana habia.

Txakurra edukitzeakotan, Oker deituko zenioke?

Ez dakit, badira urte batzuk txakurrik ez dugula etxean. Gainera, programakoarekin nahikoa dut, oraingoz.

Astean zehar, trikitia jotzeko aukerarik izaten duzu?

Badira urte batzuk jotzeari utzi niola. Txapelketak, errormeriak, festak, Aratusteak... denak probatu ditut soinu txikiarekin, baina, orain, une konkretu batzuetan bakarrik jotzen dut.

Nora zoaz udako oporretan?

ETBkoa bukatuta, ekainean, kanpora joaten naiz. Aurten, lehenengo aldiz, udako festa guztiak galduko ditut. Hala ere, ez dut zalantzarik leku onean egongo naizela.




OLAGARAI *Betizu* umeen programako aurkezlea da.

GOIENKARIA

www.goiena.net

Miguel Fuentesek Reala utzi izana ondo iruditzen zaizu? Eta bere kudeaketa?



biharamuna

Iñigo Biain


Geldokraziaren sarean 30 urtez

Memokraziaren eta lelokraziaren artean dabilen gure "demokraziak" 30 urte bete omen ditu, hiru hamar-kada indarkeriaz josiak, askatasun ezak baldintzatuak, baina botua eman ahal izateak justifikatuak. Duela 30 urte, bat baino gehiagok pentsatu zuen politika egiten hasteko garaia zela, alderdi guztiak legezatzekoa, eta askatasuna arnasten hastekoa. Baina denborak, 30 urte eta gero, erakutsi du usteak erdi ustel zirela. Beraz, urtebetetze tartan kandelak jartzekotan, **The Clash**-en *The clash*, **Sex Pistols**-en *Never mind the bollocks* edo **Bob Marley**-ren *Exodus* disko-



en izenean jarriko nituzke, 1977an kaleratu ziren disko hauek guztiak testu honen lehen erroetan aipatzen ditudanak argi eta garbi ohiukatzen baitzituzten duela 30 urte, beste askok bezala. Ezin ahaztu ere orduan estreinatutako ziren *La guerra de las galaxias: una nueva esperanza* eta *Encuentros en la tercera fase* bezalako filmak, etorkizunera begira jartzen gintuzten zeluloidezko fikzioak... Baina, fikzioak fikzio, 30 urte pasa dira, eta guztiak berdin dirau, memokraziaren eta lelokraziaren artean, geldokraziak bere etxea eraiki baitu gurean. Zorionak!

eguraldia



MINIMOA
+14

MAXIMOA
+29

Giro eguzkitsua, baina gehiegizko berorik ez. Fresko samar egingo du goizean, baina, gero, tenperatura igo egingo da.

www.euskalmet.euskadi.net

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

WEBGUNEAN www.smsoinu.com

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea **KODEA**

ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea **KODEA**

LOGOAK: Bidali, SOINUL hutsunea **KODEA**

JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea **KODEA**

5767 zenbakira

SMS bakoitzeko: **1,2 € + BEZA**

smsoinu

Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) | **KODEA**

<p>Pop-Rock</p> <p>Aitormena (Hertzainak) AITORMENA</p> <p>Aizkolari (Kortatu) AIZKO</p> <p>Amore amore (Karidadeko benta) AMORE</p> <p>Askatasun egarriz (Lin Ton Taun) ASKATA</p> <p>Begiak okertuta (Lin Ton Taun) BEGIAK</p> <p>Bi Minutero (Hertzainak) BIMINU</p> <p>Dub manifest (Femim Muguruz) DUB</p> <p>Egutero (Hertzainak) EGUTERO</p> <p>EH Sukarra (EH Sukarra) SUKAR</p> <p>Elos dicen mierda, nosotros amem (La Polla) ELLOS</p> <p>Enamorado de la muerte (RIP) ENAMO</p> <p>Entzuidazu (Aterking's) ENTZU</p> <p>Etorkezuna (Etsaiak) ETORKI</p> <p>Ezer ez da betiko (Ken7) EZER</p> <p>Gora Herria (Negu Gorriak) GORA</p>	<p>Hator Bel-Air (Bide Ertzean) BELAIR</p> <p>Haizea (Ken7) HAIZEA</p> <p>Hegal egiten (Itoiz) HEGAL</p> <p>Ikusi (Delirium Tremens) IKUSI</p> <p>Ilargia (Ken 7) KEN</p> <p>Inpermuen ate joka (Gatibu) INPER</p> <p>Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertzean) JOKIN</p> <p>Kaixo (Urtz) KAIXO</p> <p>Lau Teiltatu (Itoiz) LAU TEILTATU</p> <p>Laztana (Lutzen) LAZTA</p> <p>Lotuta egon arren (Kokein) LOTUTA</p> <p>Loretxoa (EKKIKU) LORE</p> <p>Marea Gora (Itoiz) MAREA</p> <p>Musturrek sartunde (Gatibu) MUSTURREK</p> <p>Nicaragua (Kortatu) NICA</p> <p>No time for love (Hertzainak) NOTIME</p>	<p>Salve (La Polla) SALVE</p> <p>Sarri Sarri (Kortatu) SARRI</p> <p>Sorginen leizean (Exkoiu) SORGIN</p> <p>Txabxo (Zarama) TXATXO1</p> <p>Txus (La Polla) TXUS</p>	<p>Trikitixa</p> <p>Bexameka ta pastela (Maixa ta biari) BEXAMEKA</p> <p>Bokespok (Kepa Junkera) BOKESPOK</p> <p>Hik lan eta nik jai (Tapia) HIK</p> <p>Itsas ontzi baten (Kaxiano) ITSAS</p> <p>Kupela (Epede eta Larrañaga) KUPELA</p> <p>Mila galdere (Alaitz / Maider) MILAJ</p> <p>Nirekin (Gozategi) GOZATEGI</p> <p>Ny Hirahira (Kepa Junkera) HIRA</p> <p>Txanpon baten truke (Alaitz / Maider) TXANPON</p>
---	---	--	---

LOGOAK (SMS 1)

SATANAS	EH2	SORGIN4	AIZKORAK
TARTALO	IKURRB	INRA	BABAK
BASAJAUN	IKURRIS	LAU2	ARRANAK

OHARRAK

1. BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonora bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri

2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuzko, jar zaituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Ki jaitisiera bakarrik ordaindu behar duzu. Kasu guztietan dela eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.

* Euskaltel deitu 900 64 02 00 telefonora. / ** Vodafone deitu 123-22. / *** Movistar deitu 909-9.

3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.

4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurria egin ditzaitegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.